



bertsozale
elkartea

2020ko memoria

Aurkibidea

KOORDINAZIOA	3
HEZKUNTZA	5
IKERKUNTZA	15
XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA.....	29
SUSTAPENA.....	41
LANKU	48
HEDAPENA.....	51
KOMUNIKAZIOA	58
ADMINISTRAZIOA.....	66
ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA.....	70
BERTSULARIEN LAGUNAK ELKARTEA.....	75
BIZKAIKO BERTSOZALE ELKARTEA	78
GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA.....	82
NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA.....	88

KOORDINAZIOA

Biko koordinazioak hilabete batzuetan hartu du martxa. Halere, 2021. urtean zehar bi koordinatzaileen arteko lanen banaketa errepasatuko da, Zuzendaritza Batzordearen eta lantaldearen artean zubi indartsuagoak sortze aldera.

Bileren kudeaketan aurrerapausoak egin dira: deialdian, aurrelanetan eta dinamizazioan. Urte amaieran, Kudeaketa eta Koordinazio batzordeen bileren maiztasuna hilabetera eramatea adostu da.

Urte hasierako aurreikuspen ekonomikoa hobetu da, baina ez da behar zen bezain estua izan aurrekontuari egindako jarraipena: 2021. urtetik aurrera, hiru hilabetez behin aztertuko da exekuzioa.

Pertsonalari buruz, lanketa eginda: **lan erregistroen jarraipena egiteko moduak aurkitu dira**, baina langileekin sozializatzea falta da. **Formazioan eman da beste aurrerapausoa**, lau talde lanketa burutu dira, eta formazio plan orokorraz hizketan hasi gara.

Gerora mugitzen aldizkaria publikatu du Komunikazio Sailak, eta erakunde ezberdinei azaldu diegu. Orokorrean, oso harrera ona izan du, baina denbora asko behar da labor azaltzeko. Horretarako, bideo bat prestatuko dugu 2021. urtean.

Jarraipen batzordeetan parte hartu dugu: Mintzolako patronatuan eta Lankuko Administrazio Batzordean (bitarikoak deialdi bakarra izan du). Herrialde batzuekin besteekin baino harreman jarraiagoa izan dugu.

Hitzarmenen inguruan aritu gara Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako eta Bizkaiko foru aldundiak, Emakunde eta Laboral Kutxa erakundeekin. Iazko kopuruei eutsi diegu. Dirulaguntzen etengabeko lanketan ibili gara, eta sarrera berriak izan ditugu: **Oreka (GFA), Publikoak 2020 (Eusko Jaurlaritza) eta Kutxa deialdiak (Kutxa Fundazioa).**

Babesletza pribatua lantzeko urte txarra izan da “COVID-19 urtea”. Ez da aurrerapausorik egin. Publizitate euskarrietan, www.bertsoa.eus atariko bannerrak eta bideoak dira nobedade; prezioa jarri eta salgai jarri dugu, baina kostatzen zaigu euskarria saltzea.

Elkarlan egitasmoak ditugun erakundeek ekitaldi gutxiago izan dira aurten. Gizarte erakundeekin harremana estutu dugu: Kontseiluan eta Reset taldeetan parte hartu dugu.

Mintzola Ahozko Lantegiari buruzko gogoetari jarraipena eginez, mintegia egin da abenduan. 2021ean lanketarekin jarraituko dugu.

Ondare Immaterial Izendapenaren eskaria egin da Eusko Jaurlaritzan 2020. urteko martxoan. Oraindik ez dugu erantzunik.

Eraso matxistak kudeatzeko protokoloaren atariko tailerrak egin dira, eta jarraipena egingo dion batzordea sortu da.

Txapelketen koordinazioak ordu asko kendu dizkigu, COVID-19 pandemiak izugarri aldatu baitu egoera. Bertan behera gelditu dira lurraldeetako txapelketak, eta, horren ondorioz, Euskal Herrikoa ere atzeratu egin behar izan dugu.

Elkarlearen argitalpen politikaren lehen azterketa egin da, baina 2021. urtean zehar azterketa serioago bat egingo da.

HEZKUNTZA

URTEKO HELBURUAK

Kudeaketan: Euskal Herri mailako egitasmoak gauzaten ditugun eragileen arteko elkarlana landu dugu. Hezkuntza Batzordeak funtzionamendu iraunkorrarekin jardun du. Herrialdeetako eragileekiko koordinazioa zaindu dugu.

Materialgintzan: www.bertsoikasgela.eus eta www.bertsoeskola.eus elikatu ditugu asteroko maiztasunez. Materiala sortu dugu irakasle mintegiak, Lankurekin, Hedapen Sailarekin eta Xenpelar Dokumentazio Zentroarekin. Finantzazio bateratua gauzatu dugu lurraldeekin eta Lankurekin.

Formazioan: Aisialdiko hezitzaileei ez zaie formaziorik eskaini ez delako udalekurik egon. Irakasleen kasuan, Formazio Gogoetatsuan murgiltzen ari gara. Irakasleen mintegietan nahiz berriaz antolatutako saioetan metodologiaren inguruko gogoetan jarraitu dugu, eta egunerokoak nahiz bideo grabazioak formaziorako teknika gisa erabiltzeko formatzen ari dira sei irakasle.

Aisialdian: Udalekuak ezin izan dira egin pandemia egoeraren ondorioz. Ahots Baten sormen egonaldia moldatu dugu, bi egun pasa eginez. Aisialdi Batzordearen berrantolaketa egin dugu.

Ikastolen Elkartarekin: Ikastetxeetako proiektua eta Eskolartekoa kudeatu ditugu.

Komunikazioan: Ikasturteko ekimenak komunikatu ditugu, ekimenak baliatuz partaideak gure hedabideetara erakartzeko.

Ikerkuntzan: UPV/EHU Laboa Katedrarekin pentsatutakoa gauzatu da, modu ezberdinean bada ere. Bestetik, metodologiaren inguruko ikerketarekin dihardugu burubelarri, eta dagoeneko baditugu lehen emaitzak. Ikerketa osatzea geratzen da.

Generoan: Emakumeentzako V. Ahalduentze Bertso Eskola gauzatu dugu, eta ikasturte berrian ekimenaren ardura Feminismo Sailak har dezan traspasoa egin dugu. Gizonentzako Bertso Eskola Feministaren lehen edizioaren eta bigarren edizioaren hasiera egin dugu: guztira, 12 partaide izan ditu.

SAILAREN KUDEAKETA

Bertso-eskolen batzordeak. Lurraldeetan bertso-eskolen batzordeak osatzea eta egonkortzea.

Bertso-eskolen arteko harreman sarean egin beharreko lanak ez dira egin. Momentu honetan bertso-eskolen batzordeen saretea herrialde mailan egiteko apustua egin da.

Aisialdi Batzordea. Egonkortutako batzorde hau ilusioz mantentzea. Udalekurik egin ez den arren, partaidetza prozesuaren baitan aisialdi batzordearekin harremana egin eta aurrera begirako funtzionamendua adostu da.

Transmisio Batzordea. Batzordea funtzionamendu iraunkorraz biltzea, eta koordinatu beharreko gaiak eraginkor bideratzea. 2018ko gogoetari jarraipena emanez, parte-hartzeari buruzko prozesua bideratzea batzordean.

Euskal Herri mailako egitasmoak koordinatu ditugu, Euskal Herriko koordinatzailearekin, Euskal Herriko eragileekin eta transmisio arduradunarekin. Horretarako, Hezkuntzako Batzorde Txikia sortu dugu, eta maiztasun iraunkorrez elkartzen hasi gara.

Urte honetan Euskal Herriko bi eragilek eta arduradunak izango dituzten baja eta eszedentzia zikloak zaintzeari arreta jarri diogu. Pandemia egoerak ere egitasmo asko irauli ditu eta, kasuan kasu, ordezkapena zer-nola egin landu dugu.

Euskal Herri mailako egitasmoak koordinatu ditugu herrialdeetako eragileekin.

Lurraldeek euren egoera eta egitasmoen berri ekarri dute Hezkuntza Batzordera. Pandemia gaiak lehentasuna hartu du eta erantzun azkarrak eta koordinatuak ematea lortu dugu.

Parte-hartze prozesua atzeratu da elkartean eta 2021eko urtarrilean ekingo diogu. Dena den, praktikan gure sailaren berrantolaketarekin hasi gara, egoera berriari erantzuteko.

Pandemiak ere behartu gaitu egitasmoak gure baliabideetara egokitzea eta batzordean lehentasunezko gaiei jarri diegu arreta.

Hezkuntza arautuko irakasle lantaldeak. Ikasmateriala sortzeko irakasleekin lan ardurak banatu eta ikasturteari dagokion materiala sortu.

Ikasmateriala sortzeko lan ardurak banatu ditugu irakasleekin, bi lantalde sortuz: Karta jolasak sortzeko lantaldea eta liburua berritzeko lantaldea. Bi taldeetan sorkuntza prozesua koordinatu dugu, irakasleen parte-hartze moduei arreta jarritz. Ikasmaterialen ekoizpen prozesuak bideratu ditugu irakasleekin eta Lankurekin.

Ikastolen Elkartea. Erakundeen arteko harremana zaindu eta elkarlan akordioa gauzatu.

Harreman estua izan dugu ikasturtean zehar, bai Eskolarteko proiektuari lotutako erabaki asko hartu behar izan direlako eta baita konfinatuta egon ginen bitartean Seaskako ikastolekin genuen hitzarmena negoziatu behar izan zelako. Eskolarteko lurraldeetako finalak egin ahal izan dira baina Euskal Herriko finala ezin izan da burutu eta horren ordean, Hitzetik Hortzerako programa berezi bat prestatu da finalera iritsi diren gazteekin eta Ikastolen Elkartekoekin.

AISIALDIA ETA BERTSO-ESKOLAK

Bertso Udalekuak . Bost txandak antolatu, begirale taldea berritu eta proiektuko parte sentituz, praktikaldiak eskainiz, eta gazteak elkartera erakarri.

Udalekuak ezin izan dira egin COVID-19ak sortutako gorabeherengatik.

Ahots Baten sormen egonaldia. Beste adierazpideetako gazteen parte hartzea handitzea eta elkarteekin elkarlana sendotzea.

- Egonaldia bi egunetako egun pasa bira moldatu da egoerarengatik.
- Aforoa murriztu behar izan da eta, ondorioz, gazte batzuk kanpoan utzi ditu.
- Hezitzaileen lan taldean ardura banaketa hobetzeko ahalegina egin da eta lan baldintzak hobetzeko azterketa egin da.
- Gonbidatuen aukeraketarekin bete betean asmatu da, lurraldetasuna eta generoa zaindu dira batez ere eta gazteen gustagarri izan dira aukeratutakoak.
- Azpeitiako Dinamoan egin da egonaldia eta espazio moduan oso egokia dela baloratu da horretarako.

Bertso Egunaren baitan Euskal Herriko Helduen bertso-eskolak inplikatu. Arrakastaz antolatu tokiko bertso-eskola inplikatu.

Aramaioko bertso-eskolaren eta, oro har, herriaren inplikazioa erabatekoa izan da.

Bertso egunaren hasieran egindako ibilbidean herria ezagutzeko aukera paregabea izan da eta ondoren egin diren bazkarien bidez, herri inguruan dauden auzoak ezagutzeko aukera ere izan da.

Bi sailen arteko elkarlana ona izan da eta antolatzerako garaian Elkarteko langile guztien prestutasuna eta rol banaketa ere egokia izan da.

Eskolartekoa. Herrialdeetako kanporaketak, Bertso Eskolen Egunak, eta Euskal Herriko finala indartu.

- Egoera zela eta, herrialdeetako eskolarteko kanporaketak eta finalak egiteko etengabe kontuan hartu da bertan parte hartzen ari ziren gazteen iritzia.
- Ikastolen Elkartearekin txosten bat osatzeko erabakia hartu genuen baina ezin izan dugu egin beste lehentasun batzuk jarri direlako aurretik. Eskolarteko

proiektua ondo azaldu eta erakunde bakoitzak betetzen duen papera definitzeko beharra ikusi da. Txosten horrekin asmoa da joatea proiektuaren berri ematera Aldundi eta Jaurlaritzara.

- Euskal Herri mailako jaialdia gauzatu ezin izan den arren, herrialdeetan behar izan duten azpiegitura eta baliabideak eskaini dira.

Euskal Herriko finalera iritsi diren gazteekin eta Eskolarteko proiektua azaldu asmoz, Hitzetik Hortzera programa berezi bat sortu da. Gazteen plazaratzea eta Eskolartekoaren historia ezagutzeaz gain, 10 finalistei kantatzeko plazak eskaintzea da asmoa eta horretarako normalean plazan dabiltzan bertsolariekin batera egingo dituzte saio batzuk.

MATERIAL DIDAKTIKOA

www.bertsoikagela.eus

- COVID-19ren eraginez hilabeteetako konfinamendu egoeran eman behar izan dira klaseak eta indarrak Bertsoikagela.eus atarian jartzea eskatu digu egoerak. Programa ezberdinen bidez pantaila jolasak sortzen hasi gara, baita bat-bateko fitxak pantaila formatuan jartzen ere. Pauso kualitatibo handia eman dugu.
- Atariko erabiltzaileak kudeatu ditugu, ikasturteko eguneraketak eginez. Pandemia garaian inoizko erabiltzaile kopuru handiena izan dugu.
- Albisteak eguneratu ditugu, asteroko maiztasunez. Gai baten inguruko jolasak eta bat-bateko ariketak pantailaz egiteko materiala sortuz.
- Bat-batekoa lantzeko atala garatzeke daukagu: egoerak behartu gaitu indarrak jartzera pantailarako diseinuak sortzera.
- Karta jolasak sortu ditugu (euskarri fisikoan) eta bertsio digitala webgunera ere igoko dugu.

www.bertsoeskola.eus

- Albisteak eguneratu ditugu asteroko maiztasunez.
- Gaitegia atala elikatu dugu 2019ko gaiekin.
- Hasiberriak atala elikatu dugu, Karta jolasen bertsio digitala bertara igoz.
- Bertso jarriak atala elikatu dugu. Historiako emakumeen bertsoak sareratu ditugu bertan; baita pandemian sortutakoak ere.

- Ganbara atalean historiako bertsoaldi mitikoak gehitu ditugu, Hitzetik Hortzerak sortutako ekoizpenak bertan jarri. Egin gabe gelditu zaigun lan ildo da, Xenpelar Dokumentazio Zentroaren ondaretik ale hautatuak webgunera ekartzea.

Bat-batekoa lantzeko fitxak eta talde dinamiken fitxak sortu

- Nafarroako irakasle mintegiak sortutako fitxak jaso ditugu.
- Lehendik sortuta dauden fitxa guztiak, pantailarako diseinura pasatzea lehenetsi dugu, programa berrien bidez.

Jolas kaxa sortu

Bost herrialdeetako 12 irakaslerekin sortu ditugu gelan bat-batekoa lantzeko karta jolasak (6 sortako bilduma). Diseinu lanak eta produkzioa Lankurekin egin dugu.

Bertso-eskola bakoitzari ale bana helaraziko diogu dohainik eta, ale gehiago behar zituenari erosteko aukera eman diogu.

Karta jolasak bertso digitallean igo dira hezkuntzako bi atarietara. Eta edukiaz, pantailarako bertsoak ere sortzen ari gara eta jarraituko dugu datorren urtean.

Ikasliburua berritu

Gipuzkoa eta Bizkaiako 9 irakaslerekin sortu dugu liburua berritzeko lantaldea. Prozesua abiatu genuen baina pandemian lehenetsunak webgunean jarri behar izan genituen eta ez gara gauzatzerira iritsi. Ordea, oinarriak jartzera iritsi ginen lantaldean: liburuak orain zer funtzio dituen eta egin beharreko ekarpena/berrikuntza zein den. 2021eko irailerako berritzea jarri dugu lehenetsuntzat. Diseinu lanak eta produkzioa Lankurekin landuko ditugu.

Historiako emakumeen bertsoak

Hedapen taldearekin elkarlanean, historiako emakumeen bertsoak grabatu ditugu, eta Hitzetik Hortzera saioko atal bereziko eta hezkuntzako bi atarietarako baliatu ditugu.

Haurrentzat ereduzko bertsoaldiak

- Pandemiaren eraginez ikasturte amaieran haurrek eskaintzen dituzten jaialdiak egin gabe gelditu dira eta ez dugu grabatzerik izan. Aldiz, Hedapen lantaldeak eskaini dituen “Bidaiak” saio berezietako bat, haurrei zuzendutako saioa izan da (bertsolaritza irakasleak kantuan jarri dituena) eta saio hori zuzenean emititu zen. Ikasturte amaieran irakasle taldeek haurrentzat sortutako bideo bereziak ere sareratu genituen.

- IkasElkarrek eskatuta, LHrako euren KIMU ikasmaterial berrirako bertso sortak ekoizteko prozesuan lagundu dugu, 6 urteko haurrei zuzendutako bertso sorta musikatuak sortuz. Elkarlanaz oso gustura gelditu gara eta datozen ikasliburuetan ere bertsolaritzari bere tarte egiteko nahia duela adierazi digu IkasElkarrek.

Materialgintzaren finantzazio bateratua

Lanku eta herrialdeekin elkarlanean, materialgintzako finantzaketa bateratua gauzatu dugu, 2020ko datuen arabera herrialde bakoitzak dagokion gastu zatia asumituz. Lankurekin, erakunde bakoitzari dagokigun diru-sarrera eta langileon lan ordu dedikazioak zehazten ari gara. Materialgintza eragilea eta diseinatzailea asteroko funtzionamendu iraunkorraz elkartzen hasi gara. Oraindik ere erakunde bakoitzari dagokion funtzioa, dedikazioa eta diru sarrera zehaztea falta zaigu.

IRAKASLEEN FORMAZIOA

Hezkuntza arautuko irakasleentzat formazioa antolatu, ikerketa eta materialgintzarekin uztartuta.

- Formazio gogoetatsuan ardazturik, egunerokoa behatu eta arazoak detektatzeko ahalegina egin da. Batez ere bat-batekoa (beraz, ahozkoa) ardatz izango duen metodorantz jo dugu, eta bide hori hartzeko EHko irakasle mintegietako bilerak baliatu dira.
- Esandakoa ongi egin ahal izateko, HUHEZlrekin elkarlana abiatu da. Sei irakasle, formazio arduraduna eta material arduradunak kurtso osoko formazioa abiatu dugu, formazio gogoetatsua edo errealista gauzatzeko teknikak ikasteko, besteak beste.
- Gorago esan bezala, metodo didaktiko berriarekin uztartu da irakasleen formazioa. Dena den, irakasle ikerlariaren figura da bultzatu dena, irakasleak

beraiek izanik metodo hori osatzen ariko direnak eta proban jarri ondoren emaitzak ebaluatuko dituztenak, ikerketako adituekin batera.

- Moodle plataforma erabiltzen hasi gara. Lehen pausoak eman ditugu irakasleen formazioa online egiteko. Oraindik findu eta sakondu beharreko alorra da hau.

Formazioaren finantzazioa adostu.

Finantzazio modua adostu da herrialde guztien artean.

IKERKUNTZA / MINTZOLA

Datu bilketa

- Ikastetxeen datu basea eguneratu dugu, Bertsoikasgelako datuak BDB-ra bolkatuz modu automatizatuan. Ikastetxeen datu basea eguneratu.

Metodologiaren ikerketaz jarraitu

- Metodo didaktikoaren inguruko Ikerketarekin jarraitu dugu. momentu honetan garrantzia berezia hartu duen gaia da, eta irakasleak zein ikerketaren arduraduna eskutik aritu dira lanean. Master amaierako lan gisa aurkeztuko da. Lanaren lehen emaitzek bide oparoa aurreikusten dute, haurrak bertsolaritzarekiko eta euskararekiko motibatua go somatzen ditugu.
- Erakundeekin elkarlana lantzen ari gara. Unibertsitateekin zein bestelakoekin.

Ahostegunak

Pandemia egoera zela eta proiektua zalantzan egon bada ere, azkenean Euskaltzaindia eta Laboa katedraren laguntzaz egin ahal izan da proiektua. Guztira lau saio egin dira azaroan zehar eta amaitzeko mahai ingurua egin da. Partaideen partetik balorazio oso positiboa egin da eta baita gonbidatuen partetik ere.

Euskal Herriko beste Campusetara proiektua eramateko aukerak aztertuko dira aurrera begira.

FEMINISMOA

Ahalduntze Bertso Eskola eta Gizonentzat Bertso Eskola Feminista

Ahalduntze

2019/2020 ikasturtean (V. edizioan) bertso-eskolan parte hartzeko aukera zabaldu diegu gai-jartzaileei. Orain arteko edizio jendetsuena izan da: 31 partaide (24 bertsolari eta 7 gai-jartzaile) eta dinamizatzen aritu diren 3 gai-jartzaile. Bertso-eskolaren kudeaketa lanak egin ditugu. Edizio honen balorazioa jaso dugu partaideengandik eta antolakuntza taldeaz balorazioa egin da.

2020/2021 ikasturtean Ahalduntze Bertso-eskola Feminismoa sailetik bideratzen hasi gara eta Koordinatzaileak hartu du egitasmo honen ardura; proiektuaren trasbasea egin zaio berari, bertso-eskolaren orain arteko oinarriak transmitituz.

Gizonen Bertso Eskola Feminista

2019/2020 ikasturtean (I edizioan) 12 bertsolarik hartu dute parte. 2 gai jartzaile aritu dira eta kanpo irakasle batzuk ere aritu dira (3).

2020/2021 ikasturtean (II edizioan) 11 kidek eman dute izena eta ikasturtean zehar 3 kanpo hizlari etorriko dira, 2020an horietako saio bat izan da.

Materialgintza

Historiako emakume bertsolarien bizitza eta bertsoak (antologia) transmititu dadin, materiala sortu dugu hedapen lantaldeaz eta hezkuntzako 2 atarietan sareratu dugu.

Bertso Udalekuak. Txanda guztietan hezkidetza tailerrak bermatu.

Udalekurik ez denez egin ez da lanketa hau gauzatu.

KOMUNIKAZIOA

Bertso-eskolen barne komunikazioa eragin.

- Bertso-eskolen posta zerrendak (emailekoa eta posta arruntekoak) eguneratu ditugu.

- Informazioa bideratu dugu posta zerrendara. Bereziki, materiala eskaintzeko etorri zaigu ondo.
- www.bertsoeskola.eus webgunea elikatu dugu eta honen bitartez bertso-
eskolei zuzendutako komunikazioa zaindu dugu. Webguneari esker diasporako bi bertsolari jarri dira gurekin harremanetan (Ingalaterrako Dylan Inglis eta Boiseko Todor Azurtza) eta euren bertso-
eskolei begirako laguntza eskaini diegu.

Transmisioko atariak kudeatu. Atariak eguneratu urteko ekimenekin.

www.bertsozale.eus, www.bertsoikasgela.eus eta www.bertsoeskola.eus atariak eguneratu ditugu, urtean zeharreko ekimenen informazioaz.

Komunikazioko eta hedapeneko lankideekin koordinatu gara, Elkarteko atari bakoitzari dagozkion edukiak eta estiloa zaintzeko eta sinergiak baliatzeko. Sareko erredakzio taldea sortzeko asmoa dago datorren urtean.

Kanpora begirako komunikazioa lantzea, ikasturtean zeharreko ekimen nagusien berri emanez

Ikasturtean zehar antolatzen diren ekimen nagusien kanpo komunikazioa egin dugu.

Beste eragileekin elkarlanean antolatzen ditugun ekimenen kanpo komunikazioa egin dugu eurekin koordinatuz.

IKERKUNTZA

2020 urteko egitasmoa irudikatu genuelarik inork gutxi pentsatu zuen COVID19 izeneko eritasunak baldintzatuko zuela. Hala izanik ere, COVID19ak eragindako krisi tekniko eta emozionalari aurre egin diogu, eta aurreikusitako proiektu gehienak gauzatu ditugu. Jakina, izan da halaberbertan bertan behera utzi dugun proiekturik, edo abaila motelagoan jorratu eta oraindik emaitzarik eman ez duenik. Eta kontrara; aurreikusi gabekorik izan da egindakoetan, barrura begiratzeko parada, aukera, ere izan baita krisia, eta barrura begiratzeko horietan bide egiten gabiltza; *Bapatean*, *Doinutegian*, *Ikerkuntza sailaren birdefinizioan*, esaterako.

Ondoko hauxe da egin duguna, besteak beste:

IKERKETA

Pello Mari Otaño Beka deitu dugu, Kilometroak Kultur Elkartearekin elkarlanean

Urtarrilean bertan adostu genuen elkarlana. Aurtengo Kilometroak egitasmoak Pello Mari Otaño bertsolari zizurkildarrari egin nahi izan dio aitortza, eta horren haritik etorri zen bertsolaritzari eta, oro har, ahozko arloan buruzko ikerketa laguntzeko proposamena: Pello Mari Otaño Bekan gauzatu da asmo hori. Kilometroen eta Mintzolaren artean antolatu genuen deialdia, Amasa-Villabonako eta Zizurkilgo Zubimusu Ikastolaren eta Zizurkilgo Hernandorena Kultur Elkartearen laguntzarekin.

Otsailaren 5ean aurkeztu genuen prentsaurrekoan antolatzaile eta laguntzaileok beka deialdia: Aiztondo bailarako (Gipuzkoa) ahozko ondarearen bilketa eta ikerketa bultzatu nahi izan da, eta, horretarako, 3.000 euroko saria esleitu.

Hasiera batean, apirilaren 2ra arte aurkez zitezkeen lanak, baina konfinamendu garaiarekin bat egin zuenez, epea luzatzea erabaki genuen; zehazki, ekainaren 19ra arte. Uztailaren 2an jakinarazi genuen ebazpena: Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkarguneko zenbait kidek aurkeztutako *Aiztondoren zirtotsa*. *Aiztondoko zirtotsa tradizioa eta aplikazio didaktikoa* ikerlanak eskuratu zuen saria.

Beñat Iguaran Amondarain, Haritz Mujika Lasa, Imanol Artola Arretxe, Mikel Artola Izagirre, Oihana Iguaran Barandiaran eta Unai Mendizabal Jauregi kideek aurkeztu zuten lana. Aiztondo bailaran zirtoak ahozko genero gisa izan duen tradizioa biltzea eta bere baitan esanguratsua den bilduma egitea du helburu proiektuak. Bilduma egiteaz gainera, eta ahozko ohitura horren transmisioak kezkatuta dituen, ondare hori ikasleek ezagutu eta balia dezaten aplikazio bat ere proposatuko dute egileek, hezkuntza arautuko ikasgeletan zein bertso-eskoletan landu dadin. Urtebeteko epea izango du ikertzaile taldeak lana gauzatzeko. Dena den, aurrerapen bat izan genuen urriaren 2an antolatu genuen agerraldian. Zizurkilgo Herriguneko kultur etxean antolatu genuen Kilometroek eta Mintzolak, beti ere Zubimusu Ikastolarekin eta Hernandorena Kultur Elkartearekin, proiektu sariduna aurkezteko agerraldia. Erakunde antolatzaileok hartu genuen parte, eta Harituz taldeko Haritz Mujikak proiektuaren azalpenak eman artean, Oihana Iguaran eta Unai Mendizabal taldekideek zirtoaren adibideak ekarri eta hauek nola irakatsi, transmititu, azaldu zuten.

“Kilometroak euskalgintzako eta kulturako, hau da, herrigintzako gainontzeko eragileekin batera egikaritu behar zela” garbi ikusi zutela azaldu zuen agerraldian Kilometroak Kultur Elkarteko lehendakariak, Nekane Artolak. Elkarlan proposamena pozik hartu genuen Mintzolan, eta Artolak adierazitakoari jarraipena eman zion Miren Artetxek: “Gure aldetik, eskerrik asko erakunde guztioi eta, batez ere, ikertzaileoi egitasmo interesgarri eta iradokitzaile honengatik. Kilometroekin abiatutako lankidetzak honek aurrerantzean ere bide-orri gehiago marraztea nahiko genuke”.

Elkarlan interesgarria izan da hau, eta antzerako deialdiak martxan jartzeko elkarlanentzako erreferentzia edo abiapuntua izan daiteke.

Ikerketa deialdiak: ikerketa kontratua eta proiektu sariak

Maiatzaren 18an argitaratu genituen UPV/EHUko Mikel Laboa Katedrarekin elkarlanean egindako deialdiak: bi proiektu sari eskaini genituen batetik, eta ikerketa kontratu bat bestetik.

Edozein jakintza alorretatik abiatuta, antzerkia, bertsolaritza, kantagintza, kontalaritza edota euskaraz egiten den ahozko kultur sorkuntzaren baten ikerketa egiteko aukera ederra eskaintzen dute azken urteotan deitu ohi ditugun deialdiok. Batetik, 2.000 euroko bi proiektu sari eskaini genituen: lanok urtebeteko epean egin behar dira. Bestetik, UPV/EHU gaiztatuko den doktorego aurreko ikerketa kontratua eskuratzeko deialdia ere egin dugu; kasu honetan, UPV/EHUko Euskara eta Ikerketa errektoreordetzek ere babestu zuten deialdia.

Batean zein bestean parte hartzeko azken eguna ekainaren 26a zen, eta uztailaren 20rako jakinarazi behar zen ebazpena. Lau egun lehenago argitaratu zen: Kepa Matxain Iztuetak eskuratu zuen ikerketa kontratua *Bertsolaritzaren autonomia auzitan: utilitarismoa, txapelketak, hedabideak, irakaskuntza eta hibridazioa* proiektuari esker. Bi proiektu sariek ere izan zituzten onuradunak: *Bertsolaritzaren erresistentzia funtzioa belaunaldi desberdinetako bertsolari eta bertsozale emakumeen ahotsetatik: ikerketa-ekintza partehartzailea* izena du batak, eta Ane Bengoetxea Erezuma, Ana Villanueva Martinez, Ines Huarte Gonzalez, Leire Amenabar Larrañaga eta Miren Aiertza Odriozola kideek osatutako taldeak aurkeztu zuen; bestea, Maialen Akizu Bidegainek proposatutako *Zaintzaren ekonomia eta euskal kultur sorkuntza: bi ikusezin, elkarri begira: Lehen hurbilpen baterako, bertsolaritzaren kasua aztergai* proiektua izan zen. Ikerketa kontratua urtebeterako da, beste hiru urtez luzatzeko aukerarekin. Proiektu saria lortu duten bi lanek urtebeteren buruan amaituta egon behar dute.

Xenpelar Dokumentazio Zentroko eta Ikerkuntzako kideak elkartu ziren saridunekin, haien ikerketa proiektuei buruzko oharra egin, aholkatu eta dokumentazio zein bestelako beharrak jakiteko eta laguntzeko.

Iazko saridunen lanak, Xenpelar Dokumentazio Zentroan eskuragai

Hain zuzen, aurten ikerketa kontratua eskuratutako Kepa Matxain Iztuetak proiektu sarietako bat lortu zuen iaz. Proiektu sariek ikerketa kontratuetara eta, honenbestez, doktorego aurreko lanetara egiten duten zubi lana argi erakusten dute honelako adibideek.

Matxainekin batera, Jon Gurrutxaga Urbietak eskuratu zuen proiektu saria orduan, iazko deialdi horretan. Lehenak *Bertsolaritzaren autonomia auzitan: kanpo homologazioak eta txapelketak eragindako distortsioak* izeneko azterketa burutu zuen sariarekin; eta bigarrenak, *Nazio gatazka eta diskurtsoaren bilakaera Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean (2001-2017)*. Bi lanok Xenpelar Dokumentazio Zentroko liburutegian eskuragai jarri ziren udaberrian. 2019ko Mintzola Mintegian ere eman zituzten lanon inguruko azalpenak, oraindik egiteko bidean zirela.

GRAL Sariaren deialdia

Aurretik aipatutako ikerketa deialdien eskaintza handitu eta, berriz ere UPV/EHUko Mikel Laboa Katedrarekin elkarlanean, Gradu Amaierako Lanentzako (GRAL) Saria deitu genuen bigarren aldiz. Euskarazko ahozko kultur sorkuntzari buruzko ikerketa bultzatzen du deialdiak; honenbestez, antzerkigintza, kantagintza, bertsolaritza, kontalaritza, bikoizketa edo ahoz emateko sortzen den beste kultur adierazpide bat ikertzen duten lanak hartu ziren aintzat. Bestalde, lanek 2018-2019 edo 2019-2020 ikasturtean aurkeztutakoak behar zuten izan.

Urriaren 16ra arte aurkeztu ahal izan ziren lanok, eta azaroaren 20an argitaratu berri da ebazpena: Leire Amenabar Larrañagak eskuratu du saria, *Sortzaile kulturalak eragile sozialak? Errepertorio kulturalak: espazio, audientzia eta estetika berriak* lanari esker. Saridunak 500 euro jasoko ditu. Aipatzekoa da lan ederrak jaso direla, eta askotariko gaiak lantzen dituztenak, izenburuan ikus daitekeen moduan:

- *Hizkuntzen trataera ikastetxe kulturantzunetan: elebitasun gehitzailea sortzea eta bigarren hizkuntzen jabekuntza bultzatzea*
- *Bertso-eskolak, nerabezeroan hezteko espazio gisa*
- *Emakumea bertsotarako gaia izatetik, gai dela erakusteraino*
- *La Jota Navarra: el navarrismo como elemento clave en la conformación actual del género musical*
- *Bertsolaritzaren irakaskuntza Nafarroako Foru Erkidegoko hezkuntza arautuan. Bilakaera eta proposamen didaktikoa*
- *Eta hik ze uste dun/k? Azpeitiako gazteak hitanoaren inguruan hizketan: usteak, balioak eta diskurtsoak*

- *Anari Alberdi kantariaren abesti poemen azterketa eta bere inplikazio didaktikoa*
- *Bertsolariaren formazioan bertsoa sortzeko eta interpretatzeko konpetentzia arloak*
- *Umorezko bakarriketa zientifikoa*
- *Bertsolaritzaren eragina egoera soziolinguistiko desberdinetako lehen hezkuntzako ikasleen euskararen ezagutzan, irudi sozialean eta erabileran*
- *Oholtza gaineko buruhaustekak. Genero ikuspegia lantzen duten Lankuko emanaldien ikerketa*

Bestalde, iaz GRAL Saria eskuratu zuen Idoia Ilundain Iribarrenek lehen deialdian onuradun izan zen lana azalduko du Mintzola Mintegian, azaroaren 26an: *Ahoz gorako irakurketa eta kontaketa haur hezkuntzan: ahotsaren eta entzumenaren bitartez sozializatzeko esperientzia.*

Bertsolaritzari buruzko doktorego tesiak

2019aren hondarrean aurkeztu zuen Antxoka Agirre Maiorak bertsolaritzak hedabideetan izan duen presentziari buruzko azterketa mamitsua. Tesia besapean, 2020ko hasieran hainbat hedabidetan oihartzuna izan du bere ikerlanak, eta elkarrizketak eman ditu zenbait komunikabidetan: Berrian, Radio Euskadiko Graffiti saioan, Hitzetik Hortzera telebista programan...

Agirrereren tesia hedatzen ari zela aurkeztu zuen Miren Artetxe Sarasolak berea: *Ipar Euskal Herriko bertso-eskoletako gazteen hizkuntza ibilbideak: gazte-identitateak, hizkuntza mudantzak eta legitimizazio prozesuak* izenburupean, eta Jone Miren Hernandez eta Josu Amezaga irakasle eta ikertzaileen zuzendaritzapean. Gogoratzekoa da Artetxeren lanak Mintzola Ahozko Lantegiak eta UPV/EHUko Mikel Laboa Katedrak zein Euskararen eta Ikerketaren Arloetako Errektoreordetzek 2013an esleitutako ikerketa kontratua zuela abiapuntu.

Ordurako ere lan honen printzak iritsi zitzaizkigun Mintzola Mintegian, UPV/EHUko Uda Ikastaroetan, edota Hausnartu Euskal Soziolinguistika Sariatari eskuratutako aitortzarekin batera, BAT aldizkarian kaleratutako artikuluei esker.

Lanaren izenburuak berak zehazten duen moduan, Ipar Euskal Herriko bertso-eskoletako gazteen hizkuntza ibilbidea aztertu eta bertso-eskoletan garatu dituzten praktikak eta diskurtsoak behatu ditu. Hiztun berriei ere jarri die arreta ikerlanak. "Hizkuntza ohituren aldaketak gazte identitateak eraikitzekeko estrategiak dira" eta unean-unean, bizitzako aldaketa garaietan, hizkuntza ohiturak mantendu edo aldatu daitezke – *hizkuntza mudantza* deritzona, alegia.

"Ahaleginarekin baino, gozamenarekin lotzen duten jarduera eta harreman batzuen jiran, gazte identitatea eta hizkuntza identitatea talde eta norbanako gisa eraikitzekeo parada eskaintzen die bertso-eskolek", Artetxeren aburuz. Hitza hartzea, lotsa galtzea, iritzia eraikitzea,... horiek guztiak eta gehiago partekatzen dituzte taldean: "Haiek aukeratuta eraikitzen ari diren gazte identitatearen ezaugarriak dira. Hori guztia euskaraz".

Bertso-eskolako hiztun berrien ibilbideei ere erreparatu die Artetxek bere ikerketa lanean. Horretarako bi hiztun berrien legitimizazio prozesuetan sakondu du: "Haien rol soziolinguistikoak aski legitimizatzen zituen bertso-eskolako *galbahean* oharkabean zeharkatzeko, eta ez dute etxean euskara ez ikasi izanagatik *haiek* eta *gu* bereizketarik sentitu. Bertso-munduan eta, bereziki, Hego Euskal Herrian sozializatzean, ordea, hiztun kategorien arteko bereizketarekin egin dute topo; eta horrek zalantzan jartzen du, inplizituki, hiztunon legitimitatea", azaltzen du ikertzaileak bere lanean.

Txanponak, izan ere, bi aurpegi ditu hiztun berriei dagokionez: "Bertsotan ari denari hizkuntza gaitasun altua eta erabilera trinkoa egozten zaizkio", eta beraz, bertso-eskolan sozializatzea hiztun berrien legitimizaziorako akuilu izan daiteke. Aitzitik, traba ere izan daitekeela aipatzen du Artetxek, izan ere, "bertsolari kanonikoa hiztun legitimoa da", *hiztun zaharra*, alegia.

Era berean, euskara berak zein hizkuntza gatazkak bertsolaritzaren gaitegian leku zentrala izan badu ere, Artetxeren ikerketaren arabera, "hiztun berrien errealitatea gutxi aipatu izan da gaur arte bederen".

Beñat Krolemen ikerketa egonaldia, Renon

Hiru hilabeteko egonaldia egin zuen Renon (AEB) Beñat Krolemek, bertsolaritzari buruz egiten ari den tesia medio. Pandemiak ez zizkion gauzak erraztu, udaberriaren hasieran joan baitzen, baina gauzatu ahal izan zuen bidaia.

Mintzolak Nevadako Unibertsitateko Renoko Euskal Ikasketen Zentroarekin duen harremanak erraztu zuen egonaldia, UPV/EHUK eta Eusko Jaurlaritzak onetsi zutena.

Beste hainbat ikerketa abian

Zuzenean sustatuko ikerketez eta doktore tesiez gainera, beste zenbaiten lanen berri ere izan dugu, eta ikertzaileoi eman diegu aholkularitza beren proiektuetarako.

Áreas competenciales en la formación del bertsolari para la creación e interpretación del bertso ikerketa egin du Maddi Soroak. Soroa Musikenen aritua da pedagogia musikala ikasten, eta ikerketa hori ikasketak burutzeko egin beharreko lan gisa aurkeztu zuen Musikenen.

Bertsolaritzaren kantaeraren alorrean sakondu du, ondorioztatuz kantaera ez dela lantzen, oro har, eta ez dela horretarako prestatutako irakaslerik; bestela esanda, badagoela bertsolarien beharretara egokitutako musika hezkuntza baten beharra, bertsoaren adierazkortasuna areagotzea xede. Premia horri erantzuteko ikerketa bide berriak proposatzen ditu. Soroak biziki eskertu zituen Xenpelar Dokumentazio Zentroak zein Mintzolak emandako aholku eta laguntza guztia.

Beñat Irazusta ikertzaileak ere hezkuntzan jarri du arreta. Hezkuntza Arautuan bertsolaritza irakasteari buruzko ikerketa ari da egiten. Haurrekin bertsolaritza lantzeko proposamen bat egitea du helburu Irazustak; horretarako, Irungo Elatzeta ikastetxea behatuko du, eta hainbat elkarrizketa gauzatu.

Bestalde, *Azken hamarkadetako euskal kantarien prosodia musikala* ikertu du Agustin Mendizabalek. Lanean ugariak dira bertsolaritzari buruzko aipamenak

eta ekarpenak, bertsolaritzaren irakaskuntzarako zein interpretaziorako interesgarriak. Xenpelar Dokumentazio Zentrora helarazi zigun lana Mendizabalek; baina argitaratu bitartean, ikerlana kontsultatu nahi duen orok ikertzailearen baimena beharko du, edo hari eskatu zuzenean.

Xian Naia ikertzaile galziarrak guregana

Ahazkotasunaren analisisian ari da Xian Naia; zehazki, regueifaren garapena eta gizartean betetzen dituen funtzioak ikertzen, eta baita politikarekin duen harremana ere. A Coruña-ko ikerketa beka batekin ari zen gurekin harremanetan jarri zenean, hizkuntza planifikazioan regueifaren ekarpena aztertzen.

Proiektu horren baitan, Galizian regueifarekin herrigintzan eta administratibotik eragiten ari direna azaldu nahi du, batetik; eta bestetik, planifikazio bat diseinatu nahi du, jadanik regueifari buruz egiten edo egingo diren proiektuekin, eragile eta erakundeen arteko sare bat osatzeko asmoz, hots regueifaren mundua eta hizkuntza berreskuratzen eragile direnekin.

Gurekin harremanetan jarri zen: berarekin elkartu artean bidali genizkion ikerketarako egokiak izango zitzaizkion dokumentu eta estekak, eta, era berean, berak regueifari buruzko bi artikulu utzi zizkigun.

Antropologiako ikasleak ditugu praktiketan, ikerketak egiten

Udazkenean hasi dira UPV/EHUko Antropologiako bi ikasle gurean. Datu bilketan ari dira biak: bata *Ez da kasualitatea* bertso-saio feministetako ikus-entzuleei galdetegia egiten ari da, eta pandemiak saioen antolaketan izan duen eragina ari da aztertzen bestea, bertso-eskolei galdetuta.

Etorkizuneko profesionalen prestaketan parte hartu nahi dugu, eta, era berean, beren ekarpena gure egitekoan ere aberasgarria izango delakoan gaude.

Doinutegiari buruzko ikerketa batzordea berpiztu dugu

Doinutegia batzordeak egiten duena bada ikerketa. Doinu berriak xerkatu, aztertu, sailkatu eta denen eskura jarri. Azken boladan ez dugu behar bezala

zaindu eta kudeatu. Horretara engaiatu gara, doinuei buruzko ikerketa oinarrikoa baita bertsogintzarako, izan sustapenerako, izan hezkuntzarako.

Bapateanen eraldaketa abiatu dugu

1988an argitaratu genuen lehen *Bapatean* hura, geroztik ez du euri gutxi egin. Gizartea eta bertsolaritza asko aldatu dira eta *Bapatean*-eko hainbat irizpide berrikusi, ustiaketa egokiagoa pentsatu eta hedapena ere garaiotara moldatzen hasi gara batzorde baten baitan.

IKERKETA HEDAPENA

UPV/EHUko Uda Ikastaroetan , interes handiz jarraitutako ikastaroa

Ahozko kultur sorkuntzen didaktika ikastaroa antolatu genuen aurten UPV/EHUko Uda Ikastaroen baitan; uztailaren 9an eta 10ean izan zen, Donostiako Miramar Jauregian. Apirilean ireki zen izenematea, ikastaroaren bezperara arte. Ahozko kultur sorkuntzen didaktikaren berri ematea; eta hezkuntzan ahozko kultur sorkuntzen didaktikaren lekua eta balioak aldarrikatzea zuen helburu.

Bertatik bertara jarraitu zuten zenbait lagunek, eta etxetik, online, beste zenbaitek; hezkuntzako profesionalak izan ziren horietako asko. Arrakastatsua izan zen jarraipena.

Ahozko kultur sorkuntzen ikuspuntutik aritu ziren hizlariak lehen egunean, eta ahozko kultur sorkuntzen heldu zitzaion bigarren egunean: Arantxa Hirigoyen Axut antzerki kolektiboko kidea, Gotzon Barandiaran idazle eta kulturgilea, Mikel Artola Bertsozale Elkarteko hezkuntza eragilea, Olatz Bengoetxea Soziolinguistika Klusterreko teknikaria, eta UPV/EHUko ikertzaile diren edota izandako Ainhoa Ezeiza, Aroa Murciano eta Joxerra Garzia. Hizlari bakoitzak bere ekarpena eginda, mahai-inguruan aritu ziren partehartzaileak jardunaldi bakoitzaren amaieran. Gainera, lehen eguneko ideiak biribiltzeko, Beatriz Egizabal clown inprobisatzailearen ikuskizun laburra izan genuen.

Hitzaldiak zein amaierako solasaldia interes handiz jarraitu ziren. "Izugari aberasgarria litzateke kultur adierazpide guztiak pertsonen garapen integralerako ezinbestekotzat ulertzea" aipatu zuen lehen egunean Barandiaranek, eta, zentzu horretan, kultur adierazpide horietan trebatzeko sormen laborategiak aipatu zituen Arantxa Hirigoyenek; Mintzolak horretarako tresna batzuk eman ditzakela ere mahairatu zuen Artolak, eta Ahots Baten sormen egonaldia eta Ahostegunak ekimenak aipatu ziren horren adibide.

Gustura geratu ginen ikastaroak eman zuenarekin eta, han ginela adierazi zigutenagatik, baita UPV/EHUko Uda Ikastaroetako antolatzaileak ere.

Udako Euskal Unibertsitatean aritzekoak, ekainean

Ekainaren 23an eta 24an genuen egitekoa Udako Euskal Unibertsitatearen eskaintzaren baitan antolatutako ikastaroa: Iruñeko Katakraken izan behar zuen, eta UPV/EHUko Mikel Laboa Katedraren babesia jaso zuen.

Bertsolaritzari buruzko udako eskola izan behar zuen, goizeko eta arratsaldeko egitarauarekin. Hari buruzko ikerketa eta gogoetak partekatzeko eta haietan oinarritutako tailer praktikoak jasotzeko gunea eskaini nahi zitzairen bertsozale gazteei.

Maiatzean argitaratu behar zen egitarau osoa eta orduan jarri behar genuen abian matrikulazio epea. Pandemia eta ikastaroaren ezaugarriak, ordea, tailerra izanik, ez zetozen bat, eta datorren urterako uztea erabaki genuen.

Azaroaren egin genuen Mintzola Mintegia

Mintzola Ahozko Lantegiak ikerketak bultzatu bakarrik ez eta horiei oihartzuna ematen die, beste erakunde hainbaten jardunaldietan eta ikastaroetan parte hartuta, eta mintegiak antolatuta. Udazkenean egiten dugu Mintzola Mintegia, egoitza dugun Subijana etxean elkartuta. Azaroaren 26an egin dugu aurtengoa, streamingez ere eskaini duguna.

Bertsolaritza edota beste ahozko kultur sorkuntza bat aztertzen ari diren ikertzaileak etortzen dira; tartean, Mintzolak deitutako ikerketa sariren bat eskuratu duten proiektuen egileak. Hala izan da aurten ere, eta gurean izan

ditugu Mikel Laboa Katedrak eta Mintzolak aurten banatutako bi sarien onuradunak: *Zaintzaren ekonomia eta euskal kultur sorkuntza: bi ikusezin, elkarki begira. Lehen hurbilpen baterako, bertsolaritzaren kasua aztergai* ontzen ari den Maialen Akizu, eta *Bertsolaritzaren erresistentzia funtzio belaunaldi desberdinetako bertsolari eta bertsozale emakumeen ahotsetatik: ikerketa-ekintza parte hartzailea* proiektua aurkeztu duen taldea. Ines Uhartek eta Leire Amenabarrek hartuko dute hitza taldearen izenean, Miren Aiertzak, Ane Bengoetxeak eta Ana Villanuevak ere parte hartu baitute lanean. Kepa Matxainek eskuratu du aurten ikerketa kontratua; iaz, ordea, saria eskuratu zuen, eta orduan saritutako proposamena, jada gauzatua, aurkeztu du: *Bertsolaritzaren autonomia estetiko baten bila: distortsioak eta arrasto batzuk*.

Mikel Laboa Katedrarekin deitutako sariez gainera, Kilometroekin elkarlanean ere deitu dugu Pello Mari Otaño Beka aurten. Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkarguneko zenbait kidek ondutako *Aiztondoren zirtotsa. Aiztondoko zirto tradizioa eta aplikazio didaktikoa* ikerlana aurkeztu dute Mikel Artolak eta Unai Mendizabalek.

Eta, amaitzeko, Maddi Soroa bertso-eskoletako kantaeraren lanketari buruz mintzatu da.

Bapatean 2019 kaleratu dugu udazkenean

Pandemiak gauza asko Internet sarean egitera behartu gaitu aurten, eta horrek are gehiago azkartu ditu digitalera egin beharreko urratsak. Hala gertatu da *Bapatean 2019* bildumarekin: urtero kaleratzen dugun ekoizpena aurtengoan BDB bertsolaritzaren datu-basean jarri dugu eskuragai. Esan gabe doa, ekoizpena diskora eta paperera ez ekartzeak abantailak dakartzala ingurugiroari eta alor ekonomikoari dagokionez; bestela ere aintzat hartzeko alderdiak, baina are gehiago egungo egoera honetan. Bertsozalearentzako gozagarri izateaz gainera, ikertzaileentzat baliagarri ere bada Bertsozale Elkartek Mintzola Ahozko Lantegiaren bidez gauzatutako ekoizpena, hainbat datutatik abiatuta, behaketarako eta ikerketarako aukerak ematen baititu.

Bertsozaletasunaren Azterketa Soziologikoa, Uztaro aldizkarian

Harkaitz Zubirik Leire Ugalderekin, Xabier Aierdirekin eta Alfredo Retortillorekin Bertsozaletasunaren Azterketa Soziologikoaren inguruan artikulua osatu zuen Uztaro aldizkarian argitaratzeko. Bestalde, oinarri bera zuela, beste bi artikuluk idazten aritu zen Zubiri ingelesez, eta horiek argitaratzeko aukerak aztertuko ditugu.

Deustuko Komunikazio Graduko ikasleak izan genituen gurean

Elixabete Perezek, Deustuko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileak, ez du aurtengo ikasturtean ere hutsik egin, eta aurten ere ekarri zituen Ahozko komunikazioa ikasgaiko bere hainbat ikasle gure ahozko lantegira urtearen hasieran, pandemia zabaldu aurretik.

Mintzola Ahozko Lantegiko berri jaso zuten ikasleek; interesez jarraitu zuten azalpena eta jakinmina asetzeko ohikoa baino galdera gehiago ere egin zituzten.

Harreman estua dugu unibertsitateekin, bertsolaritzaren ikerketarako zein honen hedapenerako lankidetzaz garrantzitsua baita, eta, era berean, ikasle hauen etorkizun profesionalerako interesgarri izan daitekeen egitasmoaren berri eman nahi baitiegu.

KULTURARTEA

Bertso-eskolen inguruko Renoko kongresua, bertan behera

Hirugarren urtez segidan, Renoko Euskal Ikergunekoek kongresua antolatua zuten aurten ere Mintzolaren laguntzarekin. Bertso-eskolei buruzko kongresua zen apirilaren 9an eta 10ean egin behar zena, eta Nerea Eizagirrek, Larraitz Ariznabarretak, Julio Sotok, Jone Uriak, Beñat Krolemek, Maialen Lujanbiok, Oihana Iguaranek eta Miren Artetxek hartu behar zuten parte. Udaberrian egoera zein zen ikusita, bertan behera geratu zen kongresua.

Ahozko euskal tradizioari buruzko ikastaldia Montevideon

Maialen Elizburu Etxeberriak antolatu zuen ahozko euskal tradizioari buruzko ikastaroa Montevideon; Uruguako Unibertsitateko euskal hizkuntza eta kultura irakurlea da bera. Urriaren 19tik 26ra bitarte izan ziren saioetan bertsolaritzak lekua izan zuen. Xenpelar Dokumentazio Zentroari eta Mintzolari eskatutako laguntza eman zitzaion Elizbururi, hainbat dokumenturen berri eta aholku emanaz.

Bertsolaritzari buruzko artikulua, PHn

Ondare Historikoaren Andaluziako Institutuak argitaratzen duen aldizkaria da PH. Jesus Fernandez berak gonbidatuta aritu ginen duela hiru urte Asturiaseko jardunaldi batzuetan bertsolaritzaren berri ematen, baita asturiarrez aritzeko bertso eskola tailer bat ematen ere. Fernandez bera BTN17ko finaleko Mintzola Terrazan izan zen gurekin. *Ecosistemas de innovación socialpatrimonial. Definición y estudio de casos* artikulua luzea idatzi zuen aipatu aldizkarian. Jorratzen zuen kasuetako bat zen bertsolaritzarena [irakurri artikulua hemen].

II. Congreso Internacional Del Trovo jardunaldietan izan gara

Jardunaldiak azaroaren 5ean, 6an eta 7an izan behar zuten Cartagenan, baina, azkenean, online egin ziren erabat, egun gehiago hartuz. Cartagenako *II. Congreso Internacional Del Trovo* jardunaldietako antolatzaileek 50 ponentzia bildu zituzten; haien artean Colombia, Argentina, Chile, Puerto Rico, Cuba, Panama, Espainiako Estatukoak eta Euskal Herrikoak. Jasotako berrogeita hamarren artean hautatu zituzten jardunaldietan aurkeztutakoak. Hizlariak, batik bat, kantu inprobisatuaren panorama soziokulturala aztertu zuten, baita haren historia, hedabideetako presentzia, didaktika eta etorkizuna.

Jon Martin bertsolari eta ikertzaileak hartu zuen parte. Bertsolaritzaren eta raparen arteko erkaketa egin zuen hitzaldi batean, eta Bertsozale Elkartearen antolaketari eta funtzionamenduari buruz aritu zen bigarrenean.

Kantu inprobisatuaren nazioarteko topaketa batean izan da bertsolaritza

XII Jornada Iberoamericana de niños y jóvenes poetas, troveros y versadores jardunaldietan aritu zen Iñaki Murua, abuztuaren 30ean. *El arte del bertsolarismo:*

realidad y claves de la improvisación oral vasca izeneko online hitzaldia eman zuen Muruak.

Bertsolaritzari buruzko ikastaroan ingeleraz eta on-line

Bertsolaritzari buruzko bi ikastaro eman zituen Oihana Iguaranek ingeleraz; bata Londresko Euskal Elkartek antolatua, eta bestea Etxepare Institutuaren bidez Brno eta Pragan irakurle gisa dabilen irakaslearen bidez. Iguaranek bertsolaritzari buruzko azalpen orokorrak eman zituen eta bertsoan ere jardun zuen du, ikasleek prestatutako ariketa eta gaiekin.

EGITURA

Elkarte osoa bezala, Ikerkuntza sailaren, Ikerkuntza eta XDZ, birdefinizioari ekin diogu. Funtzionamendua, proiektuen lehentasuna, egitekoak, sinergiak... aztertu ditugu, proiektuak hartu duen tamainari egokiago erantzungo dion antolaketa pentsatzeko.

XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

URTEKO HELBURUAK

Bertsozale Elkarteko egitura, funtzionamendua eta antolaketa definitzeko partaidetza prozesua abiatu da. Ikerkuntza Sailarekin batera egitasmo partekatua helburu eta egitekoak landu dira. XDZren barne gogoetarako lan-saioak egin dira.

COVID-19 osasun krisialdiaren eraginez, aurrez-aurre nahiz telelan bidezko zerbitzua berrantolatu da, eta segurtasun eta osasun neurriak hartuz gutxiengo zerbitzuak bermatu ahal izan dira.

BDB.bertsozale.eus-en ezinbesteko garapen teknologikoa burutu da fitxategi eta dokumentazio egituraketan.

Bertsolaritzaren corpusaren osaketan elkartearen sail eta herrialde guztiek duten partehartzea eta ardura sozializatzen hasi gara.

Sailekin elkarlanean ikus-entzuneko bildumaren digitalizazio beharren azterketa partekatu da.

KUDEAKETA OROKORRA

XDZren kudeaketa

- 2020ko egitasmoa zehaztu da eta Zuzendaritza Batzordeari proposatu zaio.
- Urteko balorazioa eta memoria Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu zaio urte amaieran.
- Egitasmo eta aurrekontuaren garapenaren jarraipena egin da.
- Barne orrian eta *BertsoZalean* XDZren berri eman da.
- Bertsolaritzaren eta BEren Sail eta Herrialdeetako beharrak detektatu, aztertu, lanak antolatu eta elkarlanean bideratu dira:
 - Iker taldeko bileretan parte hartuz.
 - Kudeaketa eta Koordinazio taldeetan parte hartu eta beharrianak detektatuz.
- Bertsozale elkarteko egitura, funtzionamendua eta antolaketa definitzeko partaidetza prozesua abiatu hartu da.
- XDZren koordinazio ardurak berrantolatzen aritu gara.

- XDZren talde-funtzionamendua sustatu eta kudeatu da: lanen ikuspegi orokorra lan-taldean txertatzea bultzatu da.
- 2020-2030 aldirako lan ildoak ez dira zehaztu baina Bertsozale Elkarteko gogoeta prozesuaren emaitzak barneratu, Ikerkuntza sailarekin egitasmo partekatua helburu eta egitekoak landu eta XDZren barne gogoetarako lan-saioak egin dira.

XDZren oinarriko funtzionamendua ziurtatzea

- XDZrako oinarriko funtzionamendua eta lan-taldearen finantzazioa ziurtatu da beharrezko diren txosten eta aurkezpenak prestatuz.
- Erakunde ezberdinei XDZren balioa aurkeztu zaie eta finantzaziorako bideak landu dira.

Mintzola

- Mintzola Ahozko Lantegiak bere egoera berrian izan dituen dokumentazio beharrei erantzun zaie.
- Kulturarteak:
 - ✓ Kulturarteak Mapan eguneraketak egin dira
 - ✓ Liburutegian ikerlan berrian jaso dira

Langileen formazioa ziurtatzea

Aukeren arabera langileen formazioa bideratu da.

- ✓ Lana eta denboraren kudeaketa eraginkorrerako formazioa jaso dugu.

Beste informazio zentro eta ikerketa erakundeekin harremanak lantzea

Aurretik egindako harremanak zaindu dira: Renoko Euskal Liburutegia; HABE liburutegia; Koldo Mitxelena Liburutegia; Eresbil; Labayru; Herri Musikaren Txokoa, Topic.

KOORDINAZIO OROKORRA: BILKETA

Bertsolaritzaren Funtza: Oinarriko funtsaren bilketa

- XDZren oinarritzko egitura osatzen duten, eta bertsolaritzak egunero sortzen duen dokumentu eta datuak bildu dira, sail eta herrialde eta bertsozaleekin elkarlanean.
- Bertsolaritzaren corpusa osatzeko prozesuan eta lkerkuntza sailarekin batera, sail eta herrialdeek duten parte hartzea eta ardura azaldu eta sozializatzeko lanak burutzen hasi gara, etorkizuneko bilketa ziurtatzeko: *Bapatean* eta Txapelketetako bertsogintza corpusak.

Eremu hurbilarekin oinarritzko harremanak mantendu eta sendotzea

- Elkarteko sail eta herrialdeek dokumentazioa jasotzeko harremanak bideratu dira eta behar denetan formazioa zabaldu da:
 - ✓ Grabazio-sarea indartuz
 - ✓ Bilketa aniztasuna bermatzeko bitartekoak jarritz
 - ✓ Transkripzio eta antologiaren bilketa bultzatuz
 - ✓ Argazkien bilketaren garrantzia azalduz
 - ✓ Saioen informazio-bilketaren garrantzia azalduz
 - ✓ Beste dokumentazio-bilketa ere sustatuz
- Hitzetik Hortzerak sortutako materiala eskuratu da.
- Bertsoa.eus-ek sortutako materiala eskuratu da.
- Lankurekin harremana sendotu eta sortutako materiala eskuratu da.
- *Bertsolari* Aldizkaria: aldizkariak sortzen duen materiala eta aldizkari aleak eskuratu dira eta elkarlanean sakontzeko aukerak aztertu ditugu.
- Dohaintzak zuzen erregistratu dira.

KOORDINAZIO OROKORRA: ANTOLAKETA ETA DIGITALIZAZIOA

XDZko atal guztien antolaketa eta tratamendua

- Atal guztietako manualak prestatu eta lan-taldean partekatu dira: aldizkakoak; saioak; bertso hemeroteca eta bertso-idatziak; kartelak, prentsa, argazkiak, liburutegia eta orotarikoa.
- Atal guztietako euskarrien kokapenak bateratu eta dokumentu bakarrean jasota utzi dira:
 - ✓ Katalogatu gabeko materialaren kokapena oraindik ez da zehaztu
 - ✓ Objektuen kokapenak finkatu eta birkokatu dira.

- Artxiboan (BE eta OA) katalogatzeko dauden materialak oraindik ez dira bilduta jaso.
- Erregistro sistema berrian datuak egoki eguneratzen diren ziurtatu da.

Bilduma digitala: dokumentu elektronikoen kudeaketa

- Antolaketa dokumentu Nagusian egindako egokitzapen eta hobekuntzak egunera mantendu dira.
 - ✓ SGXDZ euskarrien tratamendua
 - ✓ Kokapen moten azalpenak
 - ✓ Izendapen mota guztien azalpenak
- SGXDZ bilduma digitalaren kontrola egin da: fitxategien formatuaren, bolumenaren eta ezaugarrien araberako informazioa eskuratzea bideratu da.
- SGXDZ euskarrien kontrola egin da: Kopiak egitea eskatu, *robocopy*-ren jarraipena egiteko eskatu eta materialaren erosketaren kontrola egin dira.
- Bilduma digitalaren segurtasuna bermatzeko kopia sistemaren egin daitezkeen hobekuntzak aztertu dira baina baliabide ezagatik ez dira gauzatu.
- SGXDZ edukiaren hirugarren kopia, seguritate zinta, Subijana etxetik kanpo Eresbilen egoitzan gorde da.
- Eusko Jaurlaritzaren Errepositorio digitala egitasmoari buruz informazioa jaso da.

Zerbitzuen berrikuntza teknologikoa: Ikus-entzunezkoen gunea

- Ikus-entzunezkoen Lan-guneko eta Digitalizaziorako Unitateko ekipamendua funtzionamendu egokian mantendu da.

Hedapen sarearen antolaketa

- Erredakzioarekin dokumentazio elkarlanari jarraipena eman zaio.
- Ikus-entzunezkoen digitalizaziorako lehentasunak elkarlanean eta beharraren arabera landu dira.

Ikus-entzunezko bilduma: digitalizazioa

- XDZ Audio grabazio bildumaren digitalizazio planari jarraipena eman zaio: Txapelketa Nagusia eta herrialdetako txapelketen egoera aztertu da eta bilduma digitala osatzeko plana martxan jarri da.
- XDZ Bideo grabazio bilduma beharren arabera digitalizatu da.
- Sailetako beharrak identifikatu eta partekatu dira baina ez da digitalizaziorako planik egin.

KOORDINAZIO OROKORRA. ANTOLAKETA: DATU-BASEEN EGITURAKETA ETA INFORMAZIOAREN KUDEAKETA.

BDB datu-basea

- Web zerbitzari berriaren kontratazioa eta leku-aldaketa gauzatu da.
- Fitxategi egituraketa berdina mantendu da, etorkizunean Omeka programan ere erabiltzea aurreikusten dena (zerbitzari zaharrea kokatu eta handik zerbitzari berria automatikoki eguneratu).
- Knosys programa web zerbitzari zaharrea mantendu da baina errorea du. Ezinbestean datu-baseak Omekara pasatu beharra ikusi da.
- Deskriptoreen loturak egin dira oraingo BDBko datu-base guztietan: Liburutegia, Grabazioak, Prentsa.

Datu-base dokumentalen egitura garatu

- Samvera plataformaren ikerketa egin da eta bere konplikazioagatik baztertu egin da.
- Omeka programa aukeratu da garapen dokumental estandarra egiteko. Omekarekin garatu beharreko datu-baseen eremu-egitura bateratu eta normalizatu da.
- Artxiboa, Kartelak, Argazkiak eta Prentsa datu-baseen fitxategi egituraketarekin frogatu da. Prentsa historikoak eremu egitura berezia beharko du, baina beste guztiak egitura berdinean sartu dira.

Lankuko gestio integralerako programa

- Jasotako diru-laguntzaren bidezko aholkularitza eman da:
 - ✓ Garatuko duten enpresak hautatzeko
 - ✓ Behar dituzten beharren txostena zuzen zehazteko
 - ✓ Egindako garapen lanen jarraipena egiteko

- ✓ BDBra bidali beharreko datuak ziurtatzeko
- ✓ Agenda eta webgunea zerbitzuak berrizatzeko, Bertsoa.eus-eko datuak erabiliaz.
- Diru-laguntzarako txostena prestatu eta entregatu da.

Beste datu-base eta plataformekin datu-trukea

- Bertsozale.eus-erako prestatutako datu-bidalketak ziurtatu dira.
- Bertsoa.eus: bidaltzen eta jasotzen diren datuak ziurtatu dira
- Bertsoikaskela.eus: bidaltzen eta jasotzen diren datuak ziurtatu da
- Bertsoeskolak.eus: bidaltzen eta jasotzen diren datuak ziurtatu da
- *Kulturklik* egitasmoari bidalitako datuak Lankurenak bakarrik izatea egokitu da, *Open Data* datu gisa beste mota bateko egitasmora bidaltzen zituelako.

KOORDINAZIO OROKORRA. GIZARTERATZEA

XDZren bilduma digitalaren eta datu-baseen gizarteratzea

- Internet: Bat-bateko 180 bertsoaldi mp3 fitxategi bidez entzuteko moduan eskaini dira, dagokien grabazioen digitalizazioa eta tratamendua eginez.

XDZren zerbitzuen gizarteratzea

- COVID-19 osasun krisiaren baitan harrera zerbitzua berrantolatu da eta segurtasun eta osasun neurriak zainduz telelana eta aurrez aurreko zerbitzu bidez bermatu da.
- Subijana eraikineko ganbarako harrera gunea ikertzaileen eta dokumentazio lanen beharren arabera berrantolatu da.

Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak

- COVID-19 osasun krisiak eraginda, topaketa antolatzeko behar diren berme eta baliabide aski izan ez denez ez dira Dokumentazio Jardunaldiak antolatu.

Artium Dokumentazio Jardunaldiak

- Arte garaikideko dokumentazio zentroen X. Artium topaketetan parte hartu dugu. Artxibo eta bilduma berezien kudeaketa ondare erakundeetan izenburuko jardunaldietan hartu dugu parte. *Ahozko kultur sorkuntza, Xenpelar*

Dokumentazio Zentroaren ardatz izenburuko hitzaldia eman dugu urriaren 22an, Gasteizen.

OINARRIZKO FUNTSAREN ATALKAKO GARAPENA

Biografien datu-basea

- Iker taldearekin biografiak eguneratzeko egitasmoa lantzen hasi gara.
- Internet bidez jaso diren iradokizunak dagokion arduradunari bideratu dira eta behar izan denetan datuak eguneratu dira.

Saioak eta Aldizkako Ekitaldiak: *Aldizkako ekitaldiak, aldizkakotasun batekin errepikatzen diren ekitaldiak dira: Txapelketak, Sariketak, Bertso-paper Lehiaketak, bertso-asteak, ...*

- Agendaren bilketa modu berriak ez dira erabat ezarri:
 - ✓ Xenpelarren *whatsapp* eta *telegram* aplikazioen bidez informazioa jasotzeko bidea ez da martxan jarri.
 - ✓ Sare sozialak arakatzen dira (Facebook, Twitter, Instagram)
 - ✓ Hedabideetako hustuketa prentsako ataletik eguneratzen da.
- Agenda bilketaren garrantzia eragileekin elkarbanatu da.
- *Kulturklik* egitasmoari bidalitako datuak zaindu dira:
 - ✓ Lanku agendaren zabalkundea zaindu da.
 - ✓ Eusko Jaurlaritzaren Open Data zerbitzuan eskaintzen dituen bertsolaritzari buruzko datuak zaindu dira.

Bertsoak: *Bat-batekoak eta idatziak*

- Urtero jaso beharreko transkripzioen bilduma eskuratu da:
 - ✓ *Bapatean 2019*ko transkripzioak jaso dira
 - ✓ Osorik burutu ez direnez ez dira Euskal Herriko ezta Herrialdeetako txapelketen saioetako transkripzio guztiak eskuratu: Bizkaiko Txapelketa 2020, Xilaba 2020 eta Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa 2020.
 - ✓ Transkribatzaileek behar duten informazioa (irizpideak, grabazioak, ereduak) antolatu eta ezagutzera eman dira.
 - ✓ Transkribatzaile taldearen beharrei erantzun zaie.
- Taldearen eta egitasmoaren egoera dela eta, ez dira doinutegiari lotutako lan guztiak burutu baina biak indartzeko prozesua abiatu da:

- ✓ Doinutegi taldearen lanak koordinatu eta beharrianak detektatu dira.
- ✓ Iker taldeari doinutegiaren egitasmoaren berri eman zaio eta jasotako oharra eta iradokizunak helarazi dira.
- ✓ Doinuen errekonozimendu automatikorako aukeren azterketa abiatu da.
- ✓ Ez dira partituren fitxategi originalak bildu (.mus formatudunak) baina eskuratzeko pausuak eman dira.
- Bat-bateko bertsoen katalogazioa egin da:
 - ✓ *Bapatean 2019ko bilduma* katalogatu da.
 - ✓ Burutu ez direnez, ez da Euskal Herriko nahiz Herrialdeetako txapelketen saioetako bertsoaldien katalogazioa egin: Bizkaiko Txapelketa 2020, Xilaba 2020 eta Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa 2020.
- Publikatutako bat-bateko bertsoen korpusa errepasatu da eta Txapelketa Nagusiak 1986-1989 eta herrialdeetako txapelketen finalekin osatzen hasi gara.
- Bat-bateko bertsoen antologiak publikatzeko irizpideak jarraituz BDBn publikatu da:
 - ✓ *Bapatean 2019ko bilduma*
 - ✓ Pertsona, entitate edo gaiak beste deskriptoreen bidez katalogatzeko irizpideak finkatu eta katalogazioa martxan jarri da.

Grabazioak: *Ikus-entzunezkoak*

- 2020ko plazako jarduna jasotzeko Grabazio Sarea indartu da:
 - ✓ Herrialdeetako eragileekin eta herrialdeko ikerkuntza arduradunarekin elkarlana bultzatuz
 - ✓ Bertso-eskolekin elkar-truke tratua sustatuz
 - ✓ Baliabide tekniko egokiak eskainiz
 - ✓ Grabatzaileen formazioa bideratu, irizpideak ezagutaraziz.
 - ✓ Urteko saioen % 15a grabatzeko irizpidea bultzatuz.
- Grabazioen atala lan-taldearen dedikazioekin indartzen ahalegindu gara.
- Aurreko urteko bilketaren argazkia atera da, herrialdeka: izandako saioak eta jasotako grabazioen arteko lotura egin da BDBko grafikak baliatuz.
- Hitzetik Hortzera eta Bertsoa.eus-ek 2019-2020 ikasturtean egindako grabazioak tratatu eta katalogatu dira.

- Urtean zehar edozein euskarritan jaso diren grabazioen tratamendua eta oinarrizko katalogazioa burutu da, fitxategien izendapena eta kokapena aplikatuz.

Argazkiak: *Paper, negatibo, positibo, digital eta digitalizatuak*

- Argazki erreportaje batzuk egin dira; Elkarreak antolatzen ez dituen saioetan, ahalaren arabera egin dira, gutxienezkoa zehaztu gabe.
- Jasotako argazki bildumen informazioa bildu eta oinarrizko tratamendua ziurtatu da.
- *Bertsolari* aldizkariaren argazki bilduma eze da eskuratu.
- *Knosys* datu-baseko Argazki, kartel eta esku-orrien datuen garbiketa eta berrantolaketa egin da Omekarako iraulketa egin ahal izateko.

Kartelak: *Saio eta ekitaldien inguruan argitaratutako bilduma (esku orri, kartel, sarrera, itsasgarri, ...) eta bestelako materiala*

- Urtean zehar euskarri desberdinetan jaso diren kartel eta bestelako materialen oinarrizko tratamendua egin da ta COVID19 osasun krisiak eta bestelako lehentasunak hala eskatuta, batzuk katalogatu gabe gelditu dira.
- *Knosys* datu-baseko datuen garbiketa eta berrantolaketa egin da, Omekarako iraulketa egin ahal izateko.

Prentsa: *Paperean eta Interneten argitaratutako egunkari, aldizkari eta webguneetako artikulak*

- 2019an finkatutako prentsa atalaren katalogazioa eta tratamendua egunera eramana da.
- Prentsaren katalogazio eta tratamenduaren manuala lankideei ez zaie azaldu.
- Prentsa iturriak egunean mantendu dira, behar direnak kendu eta gehituz.
- Ez da behar izan komunikazio sailari aldizkako ekitaldi zehatzen prentsa dosierrak egiteko laguntza ematerik.
- *Knosys* datu-baseko Prentsa historikoko datuen garbiketa eta berrantolaketa egin da, Omekarako iraulketa egin ahal izateko.

Liburutegia: *Liburuak (zentzu zabalenean) eta Hemeroteka (Paperezko aldizkari, aldizkari elektronikoa, eta artikuluen datu-baseak)*

- Liburutegiko bilduma osatu da,
 - ✓ Bertsolaritzaz argitaratu diren liburuak eskuratu dira.
 - ✓ Ahozko azterketaz, munduko beste kantu inprobisatuz eta euskarazko ahozko sorkuntzei buruz argitaratu diren lanak eskuratu dira.
 - ✓ Elkarrekin eta Lankuk euskarri desberdinetan sortutako materiala bildu da (*Bertsotegia*, herrialdeetako buletinak eta bestelako argitalpenak).
- Bildutako materialaren tratamendua eta oinarriko katalogazioa burutu da,
 - ✓ 2020an jasotako liburuen tratamendua eta oinarriko katalogazioa egin da.
 - ✓ *Bapatean* 2019ko liburuen pdf formatudun bertsioa Interneten eskaini da.
 - ✓ Bertsolaritzaz argitaratutako kapitulu eta artikuluen katalogazio analitikoarekin jarraitu da.
 - ✓ Elkarrekin eta Lankuk edozein euskarritan sortutako materialaren tratamendua eta oinarriko katalogazioa egin da.
 - ✓ Ahozko azterketaz, munduko beste kantu inprobisatuz eta euskarazko ahozko sorkuntzei buruz bildutako erreferentzia bibliografikoen oinarriko tratamendua egin da.

Artxiboa

Bertsotegia Elkarrekin Artxiboa eta Orotariko Artxiboa

- Elkarrekin sortutako barne buletinak jaso dira.
- *Knosys* datu-baseko Elkarrekin eta Orotariko artxiboko datuen garbiketa eta berrantolaketa egin da, *Omeka* programara irauli ahal izateko.

ELKARTE ETA SAILEKIN ELKARLANAK

Ikerkuntza: *Dokumentazioa ikerkuntzaren beharrezkoetarako prestatu.*

- Ikerkuntza bileretan parte hartu da.
- Ikerkuntza sailak behar dituen informazio eskaerei erantzuna eman zaie.
- Biografiak egitasmoa Iker taldeetik eta Ikerkuntza sailetik bideratzeko aukeren azterketa abiatu da.

- Doinutegia egitasmoa burutzeko behar diren datu guztiak eta elkarlana eskaini da.
- Urteko bilduma egiten duen *Bapatean* antologia libururako lanak ikerkuntza eta sustapen taldearekin batera bideratu dira:
 - ✓ Saioei buruzko informazioa helarazi da.
 - ✓ Transkripzioak koordinatu eta transkribatzaileei grabazioak prestatu zaizkie.
 - ✓ *Bapatean 2019* edizio digitala prestatu eta audio fitxategiekin batera Interneten publikatu da.
 - ✓ Urtean zehar izan diren saio eta aldizkako ekitaldiei buruzko informazio guztia prestatu da, taulen bidez kopuru orokor eta ehunekoak eskainiz.
 - ✓ Urtean zehar egin diren aldizkako ekitaldien fitxa osatuak eskaini dira.
- Urtean zehar izandako jarduna irudikatzeko behar diren argazkiak eskaini dira.

Hezkuntza: *Hezkuntza sailaren beharrei erantzun*

- Hezkuntza sailak behar dituen informazio eskaerei erantzun zaie.
- *Bertsoikasgela.eus* hezkuntza arautuko ikasmaterialaren ataria elikatzeke dokumentazio zerbitzua eskaini da.
- *Bertso eskola* atariaren ikasmateriala elikatzeke dokumentazio zerbitzua eskaini da.

Sustapena: *Sail eta Herrialdeetako Sustapen sailekin elkarlana bermatu.*

- Sustapen sailak behar dituen informazio eskaerei erantzun zaie.
- Bertsolaritzaren agendaren bilketaren berri eman da eta egindako azkeneko aldaketek izandako ondorioak aztertu dira.
- Antolatu ahal izan diren txapelketa eta ekitaldietarako dokumentazioa jaso eta behar diren dokumentazio-zerbitzuak eskaini eta ziurtatu: Bertso Eguna 2020, Bizkaiko Txapelketa 2019 (Hasera fasea) eta Xilaba Txapelketa 2020 (finalaurrekoak arte). Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa 2020 ez da jokatu.
- Gai-jartzaileen plataformak behar duen dokumentazioa eskaini da.
- Epaileen plataformak behar duen dokumentazioa eskaini da.
- Lankuren kudeaketarako plataforma berrian parte hartu da.

Hedapena: *Hedapen taldearen beharrei erantzun*

- Hitzetik Hortzera eta Bertsoa.eus-eko dokumentazio beharrei erantzun zaie eta sortutako materialaren bilketa eta katalogazioa egin da.
- Hedapen lantaldeak egindako ekoizpen berezien dokumentazio beharrei erantzun zaie eta sortutako materialaren bilketa eta katalogazioa ziurtatu da.

Komunikazioa: *Elkartearen komunikazio beharrei erantzuten lagundu*

- Komunikazio sailak behar dituen informazio eskaerei erantzun zaie.

Feminismoa

- Genero taldearen dokumentazio beharrei erantzun zaie.
- Emakume historikoen dokumentazioa lehenetsi, osatu eta argitaratu da bai biografiak eta baita bertso jarrietan ere.
- Datu-base eta testuetan genero ikuspegia txertatu da.

Administrazioa

- Dokumentazio administratiboaren kudeaketa bateratua eguneratuta mantendu da: Ordainagiriaren jarraipena egin da.
- Erabiltzaile guztiei (partikularrak, erakundeak...) emandako zerbitzuen ordainagiriak bidali zaizkie.
- Azpiegitura digitalaren sistema orokorra berraztertu eta sareko zerbitzaria berritu da baina segurtasun sistema eta kopien sistema baliabide faltagatik ez da aldatu.

Lanku

- Lankuk behar dituen informazio eskaerei erantzun zaie.
- Lankuk bere jardunean sortutako materialaren gutxieneko bilketa egin da.
- Aholkularitza zerbitzua eman da plataforma digitala garatzeko (5.4.4.3)

SUSTAPENA

- Sustapen Batzordea eraginkortzea
 - o Sustapen taldean herrialde guztietako ordezkariak daudela ziurtatu
 - o Sustapen batzordearen eraberritze prozesua gauzatu.
 - o Sustapen batzordeen efikazia eta funtzioa
 - o Sustapen arduradunekin elkarlana
 - o Borondatezkoen parte-hartze osasuntsua
 - o Sustapen arduradunen egitekoak eta funtzioa
 - o Borondate & soldatapeko ordezkarien sintonia
 - o Batzordeetan asistentzia
 - o Batzordeetan parte-hartzea

- Sailaren kudeaketa orokorra
 - o Eragile postuan egokitu eta eraginkorra izan.
 - o Sustapen batzordearen kudeaketa hilabetero
 - o Koordinazio batzordea: hamabostean behin
 - o Kudeaketa taldea: hilean behin
 - o Herrialdeak eta sailak: Proiektu komunak aurrera atera, eta laguntza eman.
 - o Sustapenaren komunikazioa: Bertsozalea/Barne Orria
 - o Urteko memoriak eta egitasmoak
 - o Kanpo-harremanak
 - o Batzar Nagusia
 - o Administrazioa: aurrekontu orokorra

Egindakoa

- Tele-bileren erramintarekin ordezkarien parte-hartzea erraztu da.
- Sustapen arduradunen traspasoa eman da.
- Sustapen batzordean prestatzeko metodologia berria ezarri da.
- Asistentzia ona izan da orohar.
- Parte hartze prozesua burutu da.
- Sustapen eragile berriaren egonkortzea eman.
- Sustapen Batzordearen hileroko maiztasunari eutsi .

- Lurraldeekin harremanak osasuntsu mantendu.
- Diru-laguntzen kudeaketa ona.

ERREMINTA BATERATUAK

- Lanku
 - o Administrazio kontseiluan parte hartu.
 - o Administrazio Kontseilu aurretik eta ondoren gaiak landu eta erabakien berri eman Elkartean.
 - o Plataformaren garapenean aholkularitza eman.
 - o Sustapenetik, eta batez ere bertsogintzatik, plataformak zein ekarpen egin ditzakeen aztertu.
 - o Bertsogintzako foro bat nola sortu aztertu, sortzaileei begira.
 - o EKKI-rekin harremanak estutu eta gure ekarpenak egin: Tarifakazioak, bertsoen identifikazioa.
 - o Bertsolarien ordezkariak egiteko elkarteak sortu eta kudeatzeko kontratu bat sinatu EKKI-rekin
 - o Bertsoak transkribatzeko modu eraginkorrak bilatu
 - o Marketin arduradun berria izendatu da
 - o Administrazio berria aukeratu da
 - o Lan-taldearen harremanak

- Publizitatea
 - o Iragarki politikan irizpideak ezarri
 - o Iragarki euskarriak landu: Berriak sortu eta dauzkagunak berpentsatu.

- Bertsosarrerak

Egindakoa

- Administrazio Kontseilua sustapen Batzordearekin elkartu da. Baina ez da gauzatu Administrazio Kontseilurik.
- Plataforma digitalaren ziriketa burutu da. Garapenerako diru-laguntza lortzea falta da.
- Bertsogintzarako foroak plataforman eduki dezakeen tokia landu da.

- EKKI-ra pasatzeko prozesua jarri da bertsolarien eskura.
- Marketing langileari baloratzeko jarraipena egin zaio.
- Lan taldearen jarraipena gertutik egin da.
- Lan taldearen funtzionamendua hobetzeko prozesu bat egin da.
- Iragarkiak eta babesletzak momentuko beharretara egokitu dira.
- Herrialdeei baliabidea erabiltzea erraztu zaie.

EGITASMO ZEHATZAK

- Txapelketak
 - o 2019 txapelketen balorazioak jaso eta aztertu ekarpenak.
 - o Bertsogintzan eman nahi den saltoa emateko, lurraldeetako txapelketetan lehendabiziko erabakiak proposatu.
 - o Egutegiaren egokitasuna aztertu lurraldeekin.
 - o Aurre lanketa egin: Kokapen fasea, finalaren erabakia eta talde antolatzailea zehaztu.
 - o Txapelketaren egitura, herriak, egutegia, araudia eta epai irizpideak zehaztu.
 - o Herrialdeetako eragileei zalantzak argitu eta jarraipena egin
 - o BTN21 Egitasmoaren antolaketa kronograma egin.

- Bertso-Eguna
 - o Bertso Eguna 2020 gauzatu eta likidatu aurreikuspenen barruan.
 - o Bertso Eguna 2021 antolatu
 - o Aurrekontua gainbegiratu eta proposamen berria egin

- Eskolartekoa
 - o Lurraldeetako egutegiak koordinatu eta sarien politikan proposamen berria egin
 - o Euskal Herriko finala antolatu

- Plaza Biziberritzen
 - o Egungo neurrietara egokitutako proiektua diseinatu eta gauzatu.
 - o Plazan izandako eragina
 - o Bertsozaletasunari egindako ekarpena.

- Antolatzaileei eskainitako baliabideak
- Bertsolarien aukeraketan zehar-lerroen presentzia
- Subijana-etxearen erabilera
- Beste sailekin elkarlana
- 2021erako planaren diseinua
- Lurralde osora zabaldu egitasmoa

Egindakoa:

- Herrialdeetako txapelketei jarraipena zaie.
- Momentuko beharretara egokitzeko laguntza eman
- Egutegia koordinatzeko lanak dira.
- Bizkaiko Elkarteari ordezkapena egin Udabarriko fasean.
- Segurtasun neurrien berri eman herrialdeei.
- Diskurtsoa eta komunikazioan irizpideak markatu.
- 2021erako egutegi proposamen bat diseinatu.
- Bertso-eguna behar bezala gauzatu Aramaion
- Aurrekontuan aurreikusitakoa baina gutxiago erabili.
- Lurraldeekin etengabeko koordinazioa egin.
- Eskolartekoaren egutegiaren proposamenak eta jarraipenak egin.
- EH-ko finalaren ordezkari gaitzekin proiektu bat diseinatu.
- 23 saio burutu Subijana-etxean.
- 8 Bidaia burutu B.E-ak antolatuta.
- Bertsolarien aukeraketa zehar-lerroak presente edukita egin.
- Antolatzaileei eskura edukitako baldintza guztiak eskaini.
- 150.000 bertsozalerengana iritsi.
- B.E-aren beste sailekin elkarlanean proiektua burutu.
- 2021eko plana diseinatu da
- Lurralde guztiak kontutan hartzen dituen plan bateratu bat osatu 2021erako.

EGITASMO ZEHATZAK

- Bapatean
- Plaza azterketa
 - Plaza azterketaren arrazoiak, metodologia eta diseinua egin

- Lehentasunezko azterketak gauzatu.
- Saioei buruzko datu bilketa irizpideak landu
- Datuen bilketa egiten jarraitu
- Agendaren bilketaren gaia landu
- Bapatean publikazioa argitaratu
- Gazteen plazaratzea landu
- Zehar lerroen azterketa burutu
- Azterketen erabilera ziurtatu

Egindakoa:

- Lurraldeei plazako datuak eman proiektuen garapenean laguntzeko.
- Pandamiaren ondorioak neurtzeko datuak analizatu.
- Beste sailentzat datuak analizatu eta eskura jarri
- BDB datu basea eguneratzeko lana egin.
- Datorren urterako plaza azterketaren inguruko metodologia bat diseinatzen hasi.
- Plaza azterketaren beharrezkotasunaren pedagogia egin.

BERTSOGINTZA

- Gizonezkoen Bertso Eskola Feminista
 - Bertso-eskolaren kudeaketa egin
 - Formakuntzaren antolakuntzan parte hartu eta saioak antolatu.
 - Balorazioa egin eta jarraipenaren inguruko gogoeta abiatu
- Epailletza
 - Moodle plataforma kudeatu eta ariketak diseinatu
 - Epaille eskola iraunkorra
 - Emaizen analisia egin eta komunikatu
 - Epailleen jarraipena eta balorazio fitxak egin.
 - Euskal Herri mailan zein lurraldeetan talde kohesiorako eta trebakuntzarako dinamikak proposatu
- Gai-jartzailletza

- Gai-jartzaile taldea eguneratu. Kide berrien sarrera eta trebakuntza bermatu.
- Gai-jartzaile taldearen formakuntza
- Bertsolariak
 - Sortzaileen baldintzak hobetzeko ahalegina egin
 - Egile eskubideak EKKI-ra pasatzeko aukera landu eta komunikatu.
 - Plazan dabiltzan bertsolarien dinamikak aurrera eraman
- Diru-laguntzak
 - Kulturatik diru laguntzak eskatzea

Egindakoa:

- Bertso-eskolaren urte osoko plangintza eta kudeaketa diseinatu eta gauzatu.
- Datorren ikasturterako metodologia berria ezarri.
- Aurreko ikasturteko balorazioa kontutan hartu.
- Gai-jartzaileekin elkarlana.
- Moodle plataforma kudeatu.
- Moodle plataformarako edukiak prestatu, sortu eta moldatu.
- Erantzunen analisia egin eta irakurketa epaileen eskura jarri.
- Epaile arduradunekin Epaile Eskola Iraunkorraren jarraipena egin.
- Epaile berriak detektatu eta formazioa eman.
- Datorren ikasturtea diseinatu.
- Formakuntza honen sozializazioa Elkartean.
- Galdetegi bat osatu eta ondorioak gai-jartzaile arduradunekin partekatu.
- Ikasturte honetarako gai-jartzaile eskola sortu, diseinatu eta aurrera eraman.
- Gai-jartzaileen formakuntza zehatzak diseinatu.
- Gai-jartzaileen ahalduntze eskola diseinatu.
- Galdetegi bat pasa da eta ondorioak analizatu dira.
- Elkarteko proiektuen sozializazio lana egin da
- 30 bertsolarik parte hartutako bertsolarien bilera bat gauzatu da
- Gazteen plazaratzearen inguruko gogoeta martxan jarri.

- EKKI-ra pasatzeko azalpen bilera bat egin.
- Gipuzkoako foru Aldundian, eusko Jaurlaritzan eta Euroregioko laguntzetan proiektuak aurkeztu dira.
- 3 proiektutarako diru-laguntzak lortu dira.

KULTURARTEA

- Jaialdia 2020
 - o Jarraipena egin
- Quebec
 - o Jarraipena egin

Egindakoa:

- Proiektuari jarraipena egin.
- Boise-ko antolatzaileekin harremanak egin.
- Datorren urterako egitekoak zehaztu.
- Lehendakaritzak emandako diru-laguntza kudeatu.
- Etxepare institutuarekin harremanak egin eta diru-laguntza adostu.

LANKU

ENPRESA KUDEAKETA. HELBURUAK

- laz hasitako bideari jarraituz sail bakoitzean aurreikusitako proiektuen zehaztasuna dedikazio orduetara eta diru sarreretara eramateko ariketa egin.
- Plataforma digitala. 2020ean garapenaren zati bat martxan jarri.

Egindakoa:

- Pandemia dela eta oso urte zaila izan da, lan taldea ERTE egoeran egon da hiru hilabete eta erdi.
- Proiektuen zehaztasuna dedikazio orduetara eta diru sarreretara eramateko ariketa hankamotz dago oraindik, taldean gehiago landu behar da eraginkorra eta onartua izateko.
- Plataforma digitala aholkularitza fasean geratu da. Pandemiak dena baldintzatu du. Pandemiak gain Informatika enpresen aurrekontuak oso goitik atera dira. Eusko Jaurlaritzako ateak jo dira diru laguntzaren bat jasotzeko baino erantzunik ez dago momentuz.

BERTSO SAIOAK. HELBURUAK

- Bertsolariekin eta gai jartzaileekin Mintegia burutu. Bertso saioen tarifakazioa eguneratu.
- Egungo plazei eutsi eta Lanku bidez kudeatzen den kopurua igotzeko ahaleginean segi.
- 2018-2030 Elkartearen gogoetan atera diren lehentasunak markatu plazari dagokionean.
- Adin adin bezalako proiektu espezifikoekin jarraitu eta zabaldu.

Egindakoa

- Bertsolariekin eta gai-jartzaileekin ohiko Mintegia burutu da. Besteak beste bertso saioen tarifakazioa KPlaren arabera igotzea erabaki zen. Maiatzean Egile Eskubideeen Mintegi berezia egin zen.
- Itxialdiarekin plaza osoa erori zen, uda, udazken eta neguan bertso jaialdien formatuari eustea lortu da halere.

- Egoeragatik Adin adin ezin izan da burutu

EMANALDI BEREZIAK. HELBURUAK

- Ekoizpen propioak ekoitzi Lanku Bekaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzei esker.
- Kultur programazioetara iristeko ahalegin komertzial berezia egin.
- 2020rako IV Lanku Beka atera

Egindakoa

- Pandemia urteak markatu du plaza osoa
- Ekoizpen propioak martxan jarri dira
- Euskaraldiaren baitako Egitasmoan parte hartu da
- Emanaldi kopurua igotzea lortu da azken sei hilabeteetan egindako lanari esker

ARGITALPENAK. HELBURUAK

- Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 2019ko liburua argitaratuko da.
- Argitalpen arloan EHBEen hausnarketa eman eta bidea zehaztu.

Egindakoa

- GBT19 digitalean soilik argitaratu da
- Orainmenean emanaldiari lotuta Txakur Gorria Sormen kolektiboarekin batera liburuxka bat argitaratu da soilik.
- Hausnarketa pendiente dago

ELKARTEEI LANAK. HELBURUAK

EHBE:

- Diseinua: Hezkuntza Arautua materialgintzan Mundu bat bertso liburu bateratua eta Jolas Kutxa, Bapatean...
- Ekoizpena: Eskolarteko finala
- Nafarroa: Bardoak
- Diseinua: Irudi berria
- Ekoizpena: Finala

BBT20:

- Diseinua: Udabarria bertsotan (luzerako irudia) eta BBTko irudiaren diseinua eta euskarri ezberdinak.
- Ekoizpena: Finalurrekoak eta finala.
- Xilaba:
- Irudia: Diseinua
- Ekoizpena: Finala

Egindakoa

- Diseinuan aurreikusitako erdia eramán ahal izan da aurrera
- Ekoizpenean Pandemia dela eta ez da txapelketarik burutu

EGILE ESKUBIDEAK. HELBURUAK

- Bertsolariei zerbitzu ona eskaini.
- SGAE: eraginkortasuna lortzen jarraitu.
- EKKI: Eragiletza eta bitartekoak jarri beraiekin lanean hasteko

Egindakoa

- Egile eskubideetan urrats garrantzitsuak eman dira, bertsolari batzuk EKKI-rako saltoa eman dute
- SGAE-n bertsoari kategoria altuago bat ematea lortu da
- Likidazioan gorapen handi bat etorri da, ez dakigu argi ordea arrazoia

HEDAPENA

URTEKO HELBURUAK

- Hitzetik Hortzerako 28 programa ekoiztu ditugu ETBrentzat, eta Bertsoa.eus atariaren eguneroko jarioari eutsi diogu.
- Asteroko irrati-zerbitzua gauzatu dugu.
- 2020rako aurreikusitako Txapelketak ez direnez gauzatu, finalen ekoizpenak ez ditugu egin.
- Historiako emakume bertsolarien bilduma egin dugu: Hitzetik Hortzeran eta Bertsoa.eus-en (amaieran Emakunderen memoriarako prestatutako dokumentuko atala)
- Hedapen sailaren bideragarritasun funtzionala eta ekonomikoa ez dugu landu, eta ez dugu erabakirik hartu honen inguruan
- Autofinantzaketa: Bertsoa.eus-en bideo hasieran publia sartzeko plataforma prestatu dugu
- ETBrekiko elkarlan orokorrerako markoa ez dugu landu
- Zuzenekoak eskaintzeko inbertsioak egin ditugu

KUDEAKETA OROKORRA

Hedapen-eragilearen ardura izango da sailaren kudeaketa orokorra.

- Eragilearen ordezkapena + taldearen berrantolaketa egin da
- Lan-taldea dinamizatu da
- Kudeaketa batzordea: hamabostean behin egin da
- Koordinazio batzordea: hamabostean behin egin da
- Komunikazio taldea: hilean behin egin da
- Komunikazioa-Xenpelar-hedapena: gaiaren araberako koordinazioa egin da
- Herrialde eta sailetako koordinatu da egitasmoen hedapena
- Hedapenaren komunikazioa egin da Bertsozale berri-papera eta Barne Orriaren bidez.
- Urteko memoriak eta egitasmoak prestatu dira.
- Kanpo-harremanak mantendu dira EITB eta administrazio publikoarekin.
- Batzar Nagusia: hedapen sailaren urteko egitasmoa aurkeztu da

- Administrazioa: aurrekontu orokorrean hedapen sailari dagokion atala prestatu da.

Gogoetako Hedapen lehentasunak abian jarri

- Gogoetan hedapen sailari dagokion atala antolatu da.
- Hedapen-saila etengabeko berrantolaketa lanetan aritu da, bere helburuetara egokitzen.
- Ez da borondatezko lan talderik osatu.

BERTSO SAIOPEN GRABAZIOAK

Bertsolaritzaren plazaren bilketa eta hedapena

Bertsolarien plazaz plazako jarduna grabazioetan jaso eta gure hedabideetan zabaldu da 2020an.

- Kopuruak: gutxienez astero bi saio grabatu ditugu.
- Irizpideak: herrialdeak, saioen formatuak, genero-ikuspegia eta belaunaldiartekotasuna izan dira saioen hautaketarako irizpideak.
- Kalitatea: saioak kalitate altuan grabatu ditugu, Blackmagic kamerekin. Irailetik apirilera (Hitzetik Hortzeraren denboraldian), guztiak lau kamerekin eta apiriletik irailera saioen arabera kamera batekin, birekin, hirurekin edo laurekin. Zuzeneko errealizazioa egin dugun kasuetan, Trikaster mahaia erabili dugu.
- Antolatzaileak: saioen grabaketetarako antolatzaileekin harremanetan jarri gara. Bitartekaria Lanku denean bere bidez, eta gainontzean beste bertso-eragileen bidez.
- Bertsolariak: bertsolarien jardunaren zabalkundea egin dugu eta garrantzitsua da zabalkunde horrek bertsolarien oniritzia izatea. Grabazioen aurretik beraiekin jarri gara harremanetan: grabatzera joango ginela jakiteko eta zerbait hedatzea nahiko ez balute guri esateko konfiantza izateko.
- Bertso-saio hauen zabalkundea egin dugu gure medioetan: Bertsoa.eus atarian, Hitzetik Hortzera telebista-saioan eta lankidetzan ari garen irratietan. Aurrerago zehaztuko ditugu hedabide bakoitzeko zabalkundearen ezaugarriak.

Bertsolaritzaren mugimenduaren bilketa eta hedapena

Bertso-saioez gain, **bertsolaritzaren bueltako beste hainbat egitasmo** ere antolatzen dituzte bertso-eskolek eta gainontzeko eragileek: kultur eta euskara elkarteek, erakunde publiko zein pribatuek, norbanakoek...

Egitasmo horien artean daude: bertsolari gazteen sariketak, bertso-paper lehiaketak, emanaldi bereziak...

- Egitasmo **horien jarraipena** egin dugu gure hedabideetan. Batik bat Bertsoa.eus atarian eta ahal denean, Hitzetik Hartzera telebista-saioan:
- Bertsoa.eus atariaren kasuan, albisteak eta elkarrizketak baliatuko ditugu horretarako.
- Hitzetik Hartzera telebista-saioaren gidoiak ahalbidetzen duen kasuetan txertatu ditugu egitasmo horiek.

GURE HEDABIDEAK

Hitzetik Hartzera

- 2020an 28 Hitzetik Hartzera izan dira, bi denboralditakoak zenbatuta. 26 gai landu ditugu eta bi HH bereziak (Xilaba bilduma eta Kopla Barik)
- Elkarrizketak: gidoiak hala eskatu duenean, Eider Perezek elkarrizketak egin ditu.
- Apiriletik uztaileira 2020-2021 denboraldia landu dugu

www.bertsoa.eus

- Bertsoa.eus-en bertsoaldiak audio bidez entzuteko aukeraz aztertu dugu aurten.
- Eta urtero bezala, eguneroko jarria izan du atariak.
- Bertso-saioak: astero gutxienez bi bertso-saiotako bertsoaldi onenak jarri ditugu ikusgai.
- Martxotik ekainera, COVID19ak eragindako pandemia zela eta, Villabonako Subijana-etxean grabatutako saioak zuzenean eskaini ditugu gure atarian.
- Albisteak/erreportajeak: egunero gutxienez albiste edo erreportaje bat argitaratu dugu.
- Taldekakoak: Nafarroako Bardoak eta Arabako Kuadrilla Artekoaren berri eman dugu eta bertsoaldiak ikusgai jarri ditugu.

- Buruz burukoak: Xilaba txapelketaren berri eman dugu eta bertsoaldiak ikusgai jarri ditugu, pandemia dela egitasmoa bertan behera geratu den arte.
- Zuzenekoak: ez dugu finalik zuzenean eskaini, ez direlako egin.
- POTOKASTAK: udaberriko itxialdiak iraun zuen bitartean 14 podcast tematiko argitaratu ditugu sareko atarian, batez ere bertsolari gazteekin eginak:
 - o Ekhiñe Zapiain
 - o Lierni Rekondo
 - o Ibai Amillategi
 - o Josune Aramendi
 - o Aner Peritz 'Euzkitze'
 - o Elisabet Etxandi
 - o Ainhoa Larretxea
 - o Sarai Robles
 - o Aitor Bizkarra
 - o Peru Abarrategi
 - o Eli Pagola
 - o Ane Zuazubiskar
 - o Xabier Antia
 - o Lide Igoa
 - o Ane Telletxea
 - o Ninbe Urtxegi
 - o Irati Alcantarilla
 - o Iker Altuna
 - o Josu Ibarguren
- PODCAST ELKARRIZKETAK ere egin ditugu:
 - o Plazako isiltasuna eta itxialdiari buruz: gai-jartzaileak, bertsolariak eta Lankuko lankidean antolatzaile gisa
 - o Bertso-plaza oholtzatik lainora (streaming saioei buruz): Unai Elizasu, Aitor Sarriegi eta Jone Uria
 - o Gazteei buruz gazteekin egindako doktore tesia: Miren Artetxe

Irratiak

Euskadi Irratiarekin eta beste tokian tokiko irratiekin ditugun hitzarmenekin jarraituko dugu

- **Euskadi Irratia:** 2021erako hitzarmena landu eta sinatu dugu
- **Tokian tokiko irradiak (2017-2021):** Xorroxin irratia, Bilbo Hiria irratia, Hala Bedi irratia, Ataria Irratia eta Arraio Irratiarekin lankidetzan jarraitu dugu eta datorren urterako hitzarmenak martxan jarri ditugu.
Gure egitasmoen audiok zerbitzatu ditugu irradi guztietara.

Sare Sozialak

Hedapen-edukien komunikazioa egin dugu sare sozialetan.

EKOIZPEN BEREZIAK

Gure egitasmoari edo bertsolaritzari lotutako koizpen berezien sorkuntza.

- PLAZA BIRSORTZEN: pandemiak eragindako konfinamenduari erantzunez, Villabonako Subijana-etxean grabatutako saiok zuzenean eskaini ditugu Bertsoa.eus-en.
- XILABA: Xilaba txapelketak etenaldia izan duenez, Xilaba Bilduma eskaini dugu Euskal Telebistan, aurreko bost edizioetako bertsoaldiekin.
- KOPLA BARIK: Bizkaiko Bertsolari Txapelketa atzeratu egin denez, Bizkaiko Bertsozale Elkartek antolatutako KOPLA BARIK egitasmoari buruzko Hitzetik Hortzera berezia eskaini dugu ETBn.

Komunikazio eta dokumentazio sailarekin koordinatuta, Bertsozale Elkarteko egitasmoen jarraipena egin dugu.

Sustapena:

- Bertso Eguna (urtarrilak 18)
- TXAPELKETAK (Araba eta Nafarroako Taldekakoak)

Hezkuntza:

Eskolartekoak: herrialdeetako finalak grabatu eta gure hedabideetan zabaldu ditugu. Euskal Herriko finala ez denez egin, bertsolari gazteei ikusgarritasuna emateko aukerak landu dira sustapenarekin batera.

Udalekuak: izen-emateko albistea argitaratuko zen, baina udan egin ez zirenez, ez zen beste hedapenik egin.

Ahostegunak: egitasmoaren berri eman da

Ahots Baten Sormen egonaldia: egitasmoaren berri eman da.

Bertso-eskolak.eus atari berria: atari berriaren berri eman da Hezkuntza sailarekin koordinatuta.

Ikerkuntza:

- Ikerketa kontratuak eta sariak: azaroaren 26an Villabonan egindako Mintzola Mintegia grabatu, hizlarietako karteak hartu eta Mintzolaren youtube kanalean ikusgai jarri da.
- Bapatean 2019: argitalpenaren berri eman da.

Herrialdeetako egitasmoen hedapena:

Araba: Arabako Kuadrilla artekoa; Arabako Eskolartekoa; Bertsoa Bizi Gazte:

Bizkaia: Bizkaiko Eskolartekoa; BBK sariketa., Kopla Barik.

Gipuzkoa: Gipuzkoako Eskolartekoa

Nafarroa: Nafarroako Bardoak; Nafarroako Eskolartekoa; Bertsoaroa (urria-azaroa); Izeta sariketa

Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarre: Xilaba txapelketa

KOMUNIKAZIOA

Gure hedabideen eta beraietan argitaratzen ditugun edukien zabalkundea egin dugu

Sare sozialak

- o **Facebook:** Bertsoa.eus eta Hitzetik Hortzeraren orriak eguneratu ditugu
- o **Twitter:** Bertsoa.eus eta Hitzetik Hortzeraren orriak eguneratu ditugu

Bertsozale.eus: Bertsoa.eus atariaren jarioaren eta Hitzetik Hortzeraren edukien berri eman dugu.

Prentsa-oharra: Hedabideei Hitzetik Hortzeraren edukien berri eman diegu.

Euskal Irratiak: Hamabost egunean behin Euskal Irratiek tarte bat eskaini digute Bertsoa.eus-eko edukien berri emateko.

EITB-EHBE ELKARLANA

EITB eta EHBEren arteko lankidetzaren hitzarmen berria lantzeko pausoak eman dira.

Zuzendaritzak hau lehentasunetan jarri du.

KOMUNIKAZIOA

URTEKO HELBURUAK

Komunikazio politika:

- Komunikazio Taldean bazkietza kanpañaren gogoeta egin da baina ezinezkoa izan da gogoetari gainontzeko taldeetan (kudeaketa, zuzendaritza) jarraipena ematea.
- **Txapelketa Nagusiaren kokapen estrategiaren abiatze fasea egin da.**
- Elkarrearen **irudigintzari** buruzko gogoeta abiatu dugu Komunikazio Taldean baina izoztu egin behar izan dugu prozesua. Sariei eta sintoniari buruzko gogoetarekin gauza bera gertatu da.
- Estilo liburua ez dugu idatziz jaso.

Barne zein kanpo komunikazioa:

- Elkarrearen parte hartze prozesuaren barne komunikazioa gauzatu da.
- Eraso matxisten kontrako protokoloaren barne komunikazioa ez da landu eta kanpo komunikaziorako diskurtsoa ez dugu eraiki.
- Aldizkaria eta iritzi bideoak gauzatu eta argitaratu dira.
- Elkarrearen antolatutako ekintza guztien barne zein kanpo komunikazioa landu dira. Indar berezia jarri dugu: ikerkuntzaren dibulgazioan, Kulturgintzaren baitako kontzientziaren zabalkundean, harreman publikoen zaintza eta bistaratzean eta pandemiak eraginda, bertsolaritzaren egoeraren irakurketan zein egoeraren baitan antolatu diren aurreikusitako ekimenen zabalkundean.
- Hedabide guztiekiko harremana zaindu eta eragin da.
 - o EITBrekin marko orokorra ez dugu landu baina bilera eta lankidetzak izan dugu EITB Maratoiaren harira.
 - o Naiz irratiarekin hitzarmen orokorra lantzeari ekin zaio baina ezinezkoa izan da burutzea.
 - o Euskadi Irratiarekin Hitz Jolas irratsaioa eten egin da udaran eta harrezkero irratsaioa martxan jartzeko eragiten eta urteko hitzarmena lotzeko harremanetan ari gara.

Komunikaziorako erremintak:

BertsoZalea berripapera: digitalera saltoa egin dugu udaberrian. Aurreikusitako gainontzeko pausoak ezin izan ditugu gauzatu.

Funtzionamendua

- Webguneetako editoreen taldea ez dugu aktibatu, baina hedapen taldearekin pausoak eman ditugu eta hasi gara bisio osotik elkarrekin lanak gauzatzen.

SAILAREN KUDEAKETA

Funtzionamendua eta Antolaketa

Egitasmoa zehaztu eta beronen garapena zaindu

Egindakoa:

- 2020ko egitasmoa zehaztu eta Zuzendaritza Batzordeari proposatu zaio.
- Sailaren aurrekontua kudeatu da baina bolumen osoa bistartzeko ariketa ez da gauzatu.
- Urteko balorazioa eta memoria aurkeztu dira.
- Sailaren funtzionamendua aktibatu da. Komunikazio Taldearen 10 bilera egin dira.
- Lan orduen erregistroa ez dugu gauzatu.
- Ez dugu egin komunikazio taldearen funtzionamenduaren azterketa.
- 2021ean txapelketa egingo ez denez ez da saila indartzeko lanketarik gauzatu.
- Komunikazioan ari diren Elkarteko profesionalen arteko komunikazioa eragin da. Adituen parte hartzea eragin da. Borondatezko kideen parte hartzea eragin da.
- Herralde guztietako komunikazio arduradunen arteko eta elkarteen arteko komunikazio fluxua bermatu da. Ez gara lurraldeetara gerturatu.
- Diseinu lanen koordinazioan indarra jarri da.
- Editore Taldearen bilerarik ez da egin baina talde lana aktibatu da.
- Egitasmoen lanketarako bide ezberdinak baliatu dira. Egoerak baldintzatuta online bilerak gailendu dira. Iraupen laburreko bilera monografikoen alde egin dugu.

- Batzorde ezberdinetan parte hartu da: koordinazioa, kudeaketa, zuzendaritza...
- Taldearen formazioa sustatu da:
 - o Elkarateak antolatutako formazioetan parte hartu du sailak:
 - ✓ 2020-09-30 Lana eta denboraren kudeaketa eraginkorra.
 - ✓ 2020-11-05 Sigacus. Datu Pertsonalen babesa
 - ✓ Bestelako ikastaro eta hitzaldietan parte hartzea:
 - ✓ 2020ko azaroa | Eusko Jaurlaritza, Emakunde Euskara eta feminismoa bidelagun mahai-inguruak online.

Sailaren jardun eremua definitu.

Egindakoa:

Komunikazio taldearen jarduna herrialdeekiko nahiz sailekiko zehar lerroan egituratu da eremuak zehatzuz eta sinergiak aprobetxatuz.

KOMUNIKAZIO POLITIKA OROKORRA

Helburu zehatzak:

- Elkaratearen komunikazio politika berrikusten eta finkatzen jarraitu eta Elkarteko kideak formatu.
- Komunikazio korporatiboa
- Elkaratearen balore eta estiloa kontutan hartuko duen diskurtso propio eta koherentea bermatu.

Egindakoa:

- Elkaratearen jardunean elkaratearen balioetan eta estiloan oinarritutako komunikazio politikaren erabilera bermatu da.
- Gizarteko agente egituratuekiko (elkarte, erakunde, administrazioa...) eta hedabideekiko komunikazio eta harreman politika garatu da.
- Komunikazio politika modu jarraituan berrikusi da garatutako dokumentu guztiak karpeta berean jasoz eta elkarteko kideak formatuz.
- Komunikazio politikaren baitako atalak berrikusten hasi gara baina pandemiaren eraginez izoztu egin ditugu prozesuak.

BARNE ETA KANPO KOMUNIKAZIO PLANAK

BARNE KOMUNIKAZIOA

Helburu zehatzak:

- Zuzendaritza, Sail, lan-talde desberdinetako kide eta bazkideen arteko komunikazioa bermatu.
- Hartzaile multzo honi egokitutako mezu eta erremintak garatu.
- Informazioa lehentasunez helarazi elkarte-kideei.

Egindakoa:

- Sail eta herrialdeen arteko komunikazioa arretaz zaindu da.
- Bertsozale Elkarteko barne buletinaren 21 ale prestatu eta helarazi zaizkie elkarteko kide aktiboiei.
- Mintzola Fundazioko barne buletinaren 11 ale eta urteko memoria helarazi zaie proiektuaren jarraipena egiten duten kideei.
- Ekitaldien egutegia datu basea elikatu eta ekitaldi horien berri eman zaie, asteroko maiztasunez, elkarteko kideei.
- BertsoZalea berri paperaren 9 ale argitaratu ditugu. Pandemiaren eraginez aurreikusitakoa baino bat gutxiago. Digitalera salto egin dugu maiatzeko alearekin.
- Elkartearen berri emateko Bertsozale Elkartea, gero@a mugitzen aldizkaria gauzatu eta argitaratu dugu eta horrekin batera, elkarteko ordezkarien iritzi zutabeak argitaratu ditugu bideo formatuan. Guztia helarazi zaie bazkideei.
- Bazkidetza, 2020ko abenduaren 22an: 2506
- (2019an: 2540, 2018an: 2502, 2017an: 2482, 2016an: 2343)

KANPO KOMUNIKAZIOA

Helburu zehatzak:

- Hedabideekiko harreman iraunkorra landu.
- Hartzaile multzo honi egokitutako mezu eta erremintak garatu.
- Elkarreak antolatutako ekintzak gizarteratzeko ahalegin berezia egin.
- Harreman publikoak zaindu eta koordinatu. Bozeramaleak prestatu.
- Publizitatearen gestioa egin.

Egindakoa:

- Hedabideek elkartearen proiektuari eskaintzen dioten arretaren jarraipena egin eta eragin da.
- Hedabideei elkartearen egitasmoei buruzko albisteak eta bertsolaritzan albiste diren gaiei buruzko informazioa zein bertso saioen agenda helarazi zaie asteroko maiztasunez.
- Hedabideekin ditugun hitzarmenen jarraipena egin da Hedapen sailarekin elkarlanean. EITBrekin ez dugu hitzarmen marko orokorra lantzeko abagunerik izan baina EITB Maratoiaren harira lankidetzara eskatu zaigu eta horretan aritu gara. Naiz irratitik hitzarmen marko orokorra lantzeko proposamena jaso dugu baina egoerak baldintzatuta ezin izan diogu forma eman. Euskadi Irratiarekin beste urte baterako hitzarmena adostu dugu.
- Hedabideetako hemerrotekaren jarraipena egin dugu Xenpelar Dokumentazio Zentroaren bitartez.
- Hedabideei bertsolaritzaren agenda, artxibo eta ikus-entzunezko dokumentazio zerbitzua eskaini zaie Xenpelar Dokumentazio Zentroaren bitartez.
- Hedapen sailarekin elkarlanean aritu gara.
- Sailetako eta herrialdeetako elkarteekin zein Lankurekin elkarlanean aritu gara egitasmoen komunikazioan aholkularitza eskainiz eta komunikazio lanak bideratuz.
- Kulturgintzan ari garenaren kontzientzia zabaltzen hasi gara.
- Ikerkuntzaren dibulgazioan indarra jarri dugu.
- Elkarreak gauzatutako ekimenen komunikazio plana diseinatu eta garatu da.
 - o Ahostegunak
 - o Ahots Baten
 - o Arabako Kuadrilla Artekora 2020
 - o Bapatean2019
 - o Batzar Nagusia
 - o Bertso Eguna: 2020koa gauzatu, 2021ekoa planifikatu
 - o Bertso Udalekuak
 - o Bertsoa.eus
 - o Bertsolari Txapelketa Nagusia 2021
 - o Durangoko Azoka

- EHUko UIK ikastaroak
 - Eskolartekoa
 - Hitzetik Hortzera
 - Ikerketa sariak eta proiektu sariak. Ikerketa kontratuak. KMK beka deialdia
 - Kultura ikuspegiaren kontzientziaren sozializazioa.
 - Kulturartekoa. Kongresuak, topaketak.
 - Lanku. Argitalpenak eta ekoizpenak
 - Mintzola Mintegia
 - Nafarroako Bardoak 2020
 - Onura orokorreko elkarte izendapena
 - Tesi doktoralak
 - Udaberria Bertsotan, Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2020
 - UEU ikastaroak
 - Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak
 - Xilaba 2020
- Harreman publikoak zaindu, koordinatu eta estilo propioan komunikatu dira. Gonbidapenak kudeatu dira.
 - Publizitate akordioetan adostutakoa exekutatu da.
 - Durangoko Azokan elkarteak izan beharreko presentzia aztertu da. Egoerak baldintzatu du azoka eta elkarteko eta Lankuko argitalpenak jarri ditugu salgai erakustokiaren online dendan.

KOMUNIKAZIO ERREMINTEN KUDEAKETA

Komunikaziorako erremintak

Helburu zehatzak:

Bisio osoa izan eta estrategiak aurreikusi eta berrikusi.

Egindakoa:

- Komunikazio erremintak etengabe berrikusi dira.
- Bertsozalea berripapera: digitalera salto egin da. Maiatzetik aurrera bertsiok digitala bidaltzen hasi gara espreski paperezkoa eskatu ez duten bazkideei.
- Sarean ditugun atari eta sare sozial guztien osotasunezko ikuspegiarekin egin dugu lan. Ezin izan ditugu irizpideak berrikusi.

- Ezinezkoa izan da editore taldea elkartzea baina talde lanean hasi gara e-posta bidez lanak elkarrekin antolatuz.

Internet atariak:

Epea: 2020-01-01 / 2020-12-21 Erabiltzaileak | Sesioak

-Bertsozale.eus: 58.200 | 115.988

-Bertsoa.eus: 96.890 | 307.737

-Mintzola.eus: 10.758 | 13.914

-bdb.bertsozale.eus: 122.049 | 206.239

-bertsoikasgela.eus: 85.420 | 183.090

-bertsoeskola.eus: 10.326 | 19.612

Atariez gain sare sozialen bitartez ere garatu da kanpo komunikazioa.

Sare sozialak, datutan (jarraitzaile kopuruak):

FACEBOOK (atsegin dut/lagunak):

Bertsozale –7370 | Mintzola – 551 | Bertsoa.eus – 3260 | Hitzetik Hortzera – 4734

| Arabako BE –2590 | Bertsularien Lagunak –2.505 | Bizkaiko BE –1194 |

Gipuzkoako BE –2.754 (orr.) - 3416 (prof.) | Nafarroako BE – 4435 | Lanku –1.052

TWITTER (jarraitzaile):

Bertsozale –5.838 | Mintzola –1062 | Bertsoa.eus –5.105 | Hitzetik Hortzera 369 |

[Arabako BE](#) –918 | [Bertsularien Lagunak](#) –553 | [Bizkaiko BE](#) –1576 | [Gipuzkoako BE](#)

–1590 | [Nafarroako BE](#) – 1.256 | Lanku –1.100

YOUTUBE (harpidedunak + ikustaldiak):

Bertsozale – 262 + 97.440 | Mintzola – 1082 + 389.201 | Bertsoa – 6750 +

3.026.820 | Arabako BE – 63 + 50.732 | Bertsularien Lagunak – 100 + 135.881

INSTAGRAM (jarraitzaileak):

Bertsozale –2.385 | Arabako BE – 225 | Bizkaiko BE –755 | Gipuzkoako BE –913 |

Bertsularien Lagunak –278 | Lanku: 357

BERTSOZALEA BULETINA 381

Bertsozale.eus webgunera harpidetutako kide guztiei astero helarazi zaizkie bertsolaritzari buruzko albisteak eta saioen agenda.

Internet

Helburu zehatzak:

- Elkaratearen sareko komunikazio sistemaren kudeaketaren ardura.
- Webguneetako informazioa eguneratu.

Egindakoa:

- Elkarateak gestionatzen dituen atari guztiak etengabe eguneratu dira.
- Bertsozale.eus-eko eta Bertsoa.eus-eko bannerrak eta publizitatea gestionatu dira.
- Sarean elkaratearen eta bertsolaritzaren berri bultzatu da.
- Gainontzeko asmoak ezin izan dira gauzatu pandemiak eraginda egitasmoa aldatu delako.

Datu Baseak eta hauen babeserako neurriak

Egindakoa:

- Elkaratearen jardunerako datu baseak eguneratu dira.
- Hedabideen datu baseak berrikusi dira.
- BertsoZalea euskarri digitalean bidaltzeko bazkideen datu basea elikatzen jarraitu da.
- BertsoZalea jasotzen duten erakundeen datu baseak etengabe eguneratu dira.
- Pertsonen Datuen Babeserako neurriak aztertu eta inplementatu dira.

ADMINISTRAZIOA

SAILAREN FUNTZIONAMENDUA

- EH administrazio lan-taldea koordinatu da nahiz eta beti asteroko bilerarik ez egin. Sailean, lan eta arduren berrantolaketarekin jarraitzen dugu.
- Koordinatzailearekin elkarlan estua egon da nahiz eta hilero ez den bilerarik egon. Koordinatzailea eta Diruzainaren artean elkarlan estua egon da eta lan-taldea Diruzainarekin bildu da.
- Administrazio batzordearen koordinazioa eta jarraipena egin da, urtean 10 bilera egin dira.
- Herraldeetako diruzainekin 2 bilera egin dira.
- Elkarteak antolatutako formazioetan parte hartu du sailak:
 - o Lana eta denboraren kudeaketa eraginkorra.
 - o Sigacus. Datu Pertsonalen babesa
 - o ...

FINANTZA GESTIOA

Helburu zehatzak:

- Aurrekontua orekatu eta exekuzioaren berri zuzendaritzari eman.
- Kontabilitatea eguneratua eraman
- Diruzaintzaren jarraipena egin
- Inbentarioa eguneratu
- Herralde guztien kontuak eguneratu.
- Irizpide bateratuak landu eta zaindu.
- Ogasuneko izapideak bete.

Egindakoa:

- Aurrekontuan aurreko urteetako egitura berdina mantendu da eta jarraipena egin da, kontuak egunera eraman dira.
- Proiektuen eragileekin elkarlanean diru-laguntza eskaera eta zuriketak garaiz aurkeztu dira.
- Administrarien Batzordean zehaztutako irizpideen arabera Diruzaintza Planak prestatu dira eta diruzaintzaren jarraipena egin da.

- Elkarte guztietako arauzko kontabilitatea eraman da eta finantza irizpideen arabera egin da.
- Urteko kontu, inbentarioa... egin dira finantza irizpideak zainduz.
- Ogasunarekiko zerga betebeharrak; EH elkartearenak zein herrialdeetako elkartearenak garaiz bete dira.

ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDEEKIKO BETEBEHARRAK

Helburu zehatzak:

- EJ – Elkarteen erregistroa
- GFA - Mintzola
- Babeslaritza eta Fundazioen erregistroa
- Administrazio publikoetatik edo hauek azpikontrataturako enpresetatik jasotako inkestak bete.

Egindakoa:

- Erregistroarekiko betebeharrak egunera eraman dira.
- Mintzolan Gipuzkoako Foru Aldundiaren baitako erakunde gisa dituen betebeharrei erantzun zaie.
- Babeslaritza eta Fundazioen erregistroarekiko betebeharrak egunera eraman dira.
- Eusko Jaurlaritzak, INE,...bidalitako inkestak bete dira.

GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA

Helburu zehatzak:

- Lan kontratuen gestioa eta jarraipena
- Gizarte Segurantzaren irizpideak bete.
- Lan arrisku eta prebentzio plana bete
- Formazio hobarien kudeaketa

Egindakoa:

- Zuzendaritzak eskatutako lan hitzarmenak, agindutako baldintzetan egin dira.
- Nominen jarraipena egin da.
- Lanaldien erregistro orriak betetzeko dokumentazioa bidali da eta jarraipena egin da.

- Gaixoaldi zein lan istripu baje jarraipena egin da. Bajak eta altak bere garaian bideratu dira.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunera eraman dira.
- Baimen, eszedentzia,...jarraipena eta kontrola egin da.
- Lan arrisku eta prebentzio plana:
 - o Zerbitzua ematen duen enpresaren teknikariarekin bilera bat egin da.
 - o Langileen azterketa medikuen egutegia zehaztu da eta egin dira.
 - o COVID19aren ondorioz hartu beharreko segurtasun neurrietarako bitartekoak jarri.
- Langileen formazioaren bonifikaziorako tramiteak bideratu dira.
- COVID-19 osasun krisialdiaren eraginez, langileek aurrez-aurre lan egin ahal izateko, larrialdi egoerak eskatzen dituen mugikortasun agiriak egin dira.

BAZKIDE ERROLDA

Helburu zehatzak:

- Bazkideen alta eta bajak erroldatu, eta datu baseak (bertsolarreak, outlook,...) egunera eraman.
- Eskatzen diren informeak egin.
- Kuotaren kobrua bideratu eta jarraipena egin.

Egindakoa:

- Urtean zehar izan diren bazkideen altak eta bajak garaiz bideratu dira. Bazkide berriei eta txartela galdu dutela jakinarazi duten bazkideei txartela bidali zaie.
- Eskatutako informeak egin dira.
- BNrako bazkidetzaren inguruko informazioa prestatu da.

EGITEKO ZEHATZAK

Helburu zehatzak:

- LINAX
- Onura Orokorreko Erakunde izendapena.
- Datu Pertsonalen Babeserako legea
- BERTSOSARRERAK web-gunearen kontrola:

- Salmentan jarriko diren ekitaldien urteko egutegia prestatu eta aurrelanak antolatu, salmenten likidazioak prestatu,...

Egindakoa:

- LINAX (Baliabide ekonomiko eta Giza baliabideen kudeaketarako aplikazioa) diseinu eta garapen lanekin jarraitu da baina, zenbait gorabehera tarteko, urrian Linaxen diseinu eta garapenaren prozesuaren inguruko balorazioa egitea erabaki zen, aurrera begira erabaki bat hartzeko.
- Onura Publikoko erakunde izendapena lortzeko prozesua ezin izan da bideratu.
- Datu Pertsonalen Babeserako legea implementatu da eta sail eta herrialdeen kezkak eta zalantzak argitu dira. Gai honen inguruko formazioa bideratu da, aholkularitza ematen digun enpresak emana.
- BERTSOSARRERAK web gunearen kontrola:
 - Salmentan jarriko diren ekitaldi desberdinen urteko egutegia aurrez prestatzea ez da lortu.
 - Urtean izan diren ekitaldien sarrera salmentak aktibatu da eta likidazioak egin dira.

OHIKO EGITEKOAK

- Harrera (Telefono zein aurrez-aurrekoa) ,posta banaketa, egin da.
- Koordinatzaile, Sailetako eragile eta Herrialdeetako Koordinatzaileei laguntza eskaini zaie.
- Bitarteko teknologikoez arduratu da, sortutako arazoak bideratuz. Sare informatikoaren segurtasun neurriak indartu egin dira. Telelana ahalbidetzeko sare informatikoa indartu.
- Artxibo informatikoaren ziurtasun kopia sistema aldatu da eta kopiak egin dira.
- Elkarteko artxibo administratiboaren antolaketa zaindu da; eguneratu beharrearne geratu da.
- Ibilgetu materialaren inbentarioa eguneratu beharrearne geratu da.
- Biltegiko edukia kontrolatu da beharrezko suntsigarri materialaren erosketak bideratuz eta salmentako materialaren mugimendua zainduz.
- COVID19aren ondorioz hartu beharreko segurtasun neurriak betetzeko bitartekoak jarri.

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

HELBUKAK

1. GIZA BALIABIDEAK, PROIEKTUAK ETA BALIABIDE EKONOMIKOAK OREKATU
2. BERTSOGINTZAREN EKOSISTEMA ZAINDU
3. TRANSMISIOKO LANA ERAGINKORRAGO EGIN

Balorazioa

Helburuak bete dira, egoera oso zaila bizi izan dugun arren, proiektuari eta ekosistemari eutsi egin diegu %95ean. Hurrengo urterako helburu beretsuak jarri daitezke eta beste hainbeste egitea lortuz gero, ez da gutxi izango.

Idazkaritza saileko helburu orokorrak:

- Elkartearen kohesioa eta funtzionamendu egokia bermatu
- Nazio mailan egoki koordinatu eta erakundeekiko harremanak landu
- Menpekotasunak saihestuz eta proiektua egoki defendatuz
- Baliabide ekonomikoak, materialak zein pertsonalak egoki kudeatu

2020ko idazkaritza saileko balorazioa

Pertsonalean errefortzua asko nabaritu da, lantaldea indartu da eta giro ona eta optimismoa nagusi dira. 2020ean murrizketak izan ditugu baino ia azko emaitza positiboarekin berdindu ahal izan dugu. Lana eta proiektua etengabe birbanatzen eta egokitzen aritu gara. 2021ean bide beretik jarraitzea ezinbestekoa da.

- Elkartearen oinarriko funtzionamendu egokia bermatu da eta arauzko betekizunak txukun bete dira.
- Egitasmoa eta ildo estrategikoak adostu eta bete dira.
- Kargudunak eta Bolondresak ahaldundu dira elkartearen gidaritza egin dute.
- Lan antolaketa eraginkorra egin da, errekursoak optimizatu dira, eta ongi koordinatu gara.
- Pertsonalaren kudeaketa egokia egin da.
- Nazio mailan ongi koordinatu gara.
- Aurrekontuaren eta diruzaintzaren jarraipen zorrotza egin da.
- Herrigintzan parte hartu dugu ekarpena egin dira bertsolaritzatik, ikuspegi propioa emanez.

Komunikazio saileko helburu orokorrak:

- Elkartearen eta bertso mugimenduaren berri ematea bazkideei eta Arabako gizarteari.
- ABEn beste sailak indartzea.

2020ko komunikazio saileko balorazioa

Herrialde eta nazio mailan koordinatzea lortu dugu, barne komunikazioa egokia izan da eta egoera latzean ezinbestekoa izan da komunikazioaren bidez komunitatea trinkotzea eta parte hartzeko aukerak eskaintzea. Eragozpen fisikoak izan dira baino bitarteko birtualak zorrotz ahal izan ditugu. Kanpo komunikazioari dagokionez ere helburuak bete dira, zertan ari garen nahiko ongi komunikatu dugu kanpor abegira. Hobetzeko dugu Barne orrian gehiagotan idaztea beste herrialdeekiko komunikazioa lantzeko eta bestetik komunikazio arduradunaren parte hartzea zuzendaritzan ahalbidetzea.

- Herrialde eta nazio mailako koordinazioa bermatu dugu.
- Barne komunikazioa: bazkideak informatu, komunitatea trinkotu eta parte hartzeko aukera eskaini da. Baina, barne orrian ez dugu parte hartu.
- Kanpo komunikazioa: elkartearen proiektu ezberdinez eta Arabako bertsolaritzaren mugimenduaz iraunkorki informatu gizartea.

Transmisio saileko helburuak

- Bertso-eskoletako ikasleen arteko harremana eta plazaratzea zaindu.
- Irakasleen formazioa eta erreleboa. Materiala.
- Zubiak: Bertso eskolak sortzeko lan intentsiboa. Amuarekin arrantzatu arrastrerik gabe. Gazteak Bertso mugimendura erakartzeko zirkuituak aztertu (Ikerkuntzarekin elkarlanean)

2020ko Transmisio saileko balorazioa

Bertso-eskolen Harremana zaintzen saiatu bereziki talde barruan baita taldeen artean ere dena kontra egon arren, plazaratzea eta harremana mugatua egon da, baino lortu dugu. Pandemiarik egongo ez balitz ere ez genuen gutxiago egingo. Irakasle taldea inoiz baino gehiago batu da eta zailtasunen aurrean laguntza handia. Materiala ere sortu/erraztu da. Bertso-eskolak sortzeko garai txarrak izan arren ,zeudenak mantendu eta berriak sortu dira udalen testuingurua. eskolaz kanpoko bezala ezinezkoa izan da. Ikerketarik ez da egin ez da horretarako urterik egokiena izan, gaztetxeak itxita egon dira. Hobeto

definitu eta zehatzago jarri behar da helburu hau 2021ean mantendu nahi badugu.

Kudeaketa orokorra

- Oinarrizko ezagutza herrialdean bermatzeko 7 eskualdetan lan egin da hezkuntza, aisialdia eta bertso-eskoletan.
- Bertso eskolak mantendu dira, ordezkapen naturala ziurtatu da eta indarberitu da.
- Gazte berriak plazarako trebatu dira, kolektibo bezala indartu eta motibatu dira.
- Transmisioan egiten den lanaren Komunikazioa modu eraginkorrean egin da.

Gasteiz Bertsolari

- Hezkuntza arautuko lanari jarraipena eman diogu, haur, gazte eta helduak bertso eskoletara erakarrit.

Aisialdia

- Bertsolaritza aisialdirako gozamen eremu bezala eskaini da eta zabaldu da Arabako haur eta gazteen artean.

Bertsoa Bizi Gazte

- Gazteak bertso mundura erakarri dira, bertsozaletu eta bertso eskolarako zubiak eraiki dira.

Arabako bertso-eskolak

- Bertso-eskolarako zuzeneko zubiak izango diren aukera gertuko eta errealak eskaini zaizkie haur eta gazteei.
- Ezin izan da ezer egin bertso eskola artean, baina Araba Bertsozale Bertso Eskoletako kideei kantatzeko aukera eman zaie.
- Bertso-eskolak indartu dira; harremanak landu, plazaratzea zaindu eta jende berria erakarri.

Sustapen saileko helburu orokorrak

- Bertsolaritzaren testigantza bermatzea herrialde osoan eta arlo guztietan
- Bertsogintzan sustatzea
- Bertsozaletasuna elikatzea eta zabaltzea
- Arabako bertsolaritza gizarteratzea

Kudeaketa

- Herrialde eta nazio mailako koordinazioa bermatu da
- LANKUrekin sustapen elkarlana egin da.
- Bertso-saioen jarraipena egiten da.
- Arabako bertsolaritzaren hedapena bideratu da.
- Saioen exekuziorako behar diren baliabideak lortu dira.
- Gasteizko jaietako egitarauan bertsolaritzaren presentzia bermatzen da, naiz eta aurten ez den Gasteizko Jairik izan.

Gasteiz Bertsozale

- Gasteizen bertsolaritzak dinamika propioa eduki dezan eragiletza lana egin da.
- Formatu ezberdinetako saioak antolatzea ez da posible izan 2020an pandemia dela eta. Gasteizko bertsozaleak aktibatu dira ahal zen neurrian eta Gasteiz bertsozale izan jarraitu dugu.
- Bertsolari, epaile eta gai-jartzaileentzat formakuntza egin zen urtarilean.
- Gasteizen bertsogintzarekin zerikusia duena jaso da.
- Gasteiz Bertsozale egitasmoa iragarri eta hedatu da.

Araba Bertsozale

- Araban bertsolaritza leku berrietara zabaldu dadin eta dinamika propioa eduki dezan eragiletza egin da.
- Bertsogintza aktibatzea formatu berriak sortzeko lana egin da eta bertsolarien arteko elkarlana eta konplizitatea landu dira pandemiak utzi duen neurrian.
- Saio gutxi egiten diren eskualdeetara bertsolaritza hurbildu da eta bertako agenteak aktibatzekeo lana egin da Araba Bertsozale bitartez.
- Bertsogintza osasuntsu mantentzea lortu da hein handi batean, txapelketarik gabeko urtea izanik ere.
- Araban bertsogintzarekin zerikusia duena jaso da.
- Araba Bertsozale egitasmoa elkartetik kudeatu da ez baikenuen eskakizunik jaso.

2020ko Kuadrilla arteko Txapelketa

- Kuadrilla artekoa egitasmoa iragarri eta hedatu da.

- Bertso-eskolak bultzatu dira, indartu daitezten eta aurrera egin dezaten.
- Bertsolarien eta bertso-eskolen arteko harremana bultzatu da eta baita belaunaldi ezberdinen artekoa ere.
- Kuadrilla artekoarekin zerikusia duena jaso da.

2021ko Arabako Binakako Bertsolari Txapelketa

- Txapelketa diseinatzeko informazioa jaso da.
- Antolakuntza martxan jarri da.
- Kantatuko duten bertsolariak zehaztu dira.
- Babesletza berriak bilatu dira
- Bertso-eskolak aktibatu dira.
- Kantatuko duten taldeak zehaztu.
- Antolakuntza martxan ipini da.

Ikerkuntza sailerako helburuak

- Datu eta materialaren bilketa kopuruei eutsi
- Arabako bertsolaritza eta bertso-gintzari buruz Arabako bertsozaleen iritziak jasotzea.

2020ko Ikerkuntza saileko balorazioa

- Bilketa beti bezala txukun egin da.
- Bigarren helburuan inkestaren emaitzaren dibulgazioa egin da. Gazteen zirkuituen inguruan ez da ezer egin. Hurrengo urtean egiteko asmoa badago helburua gehiago zehaztu beharko da.
- Herrialdeko ekitaldien dokumentazioa bildu da eta Xenpelarrera igorri zaio
- Haitzondo datu basea eguneratu da hein handi batean.
- Herrialde eta nazio mailako koordinazioa bermatu da.
- Arabako bertsozaleen iritzia aztertzea eta baliatzea etorkizunerako erronkak markatzeko helburuari ez diogu heldu oraindik.

BERTSULARIEN LAGUNAK ELKARTEA

HEZKUNTZA

- Bertsu Eskolekin lanean jarraitu da. Izan dira eskola batzuk telematikoki eman direnak. Normalean Bertsu Eskola presentzialak izaten ari dira, egoeraren arabera.

2020-2021: Haurren Bertsu Eskolak 17 herrietan, 31 talde eta 224 ikasle Orokorri, ikasturtean 1271 oren emanen dira bertsu eskoletan.

Bertsu-eskolen dinamika laguntzeko ekintza osagarriak antolatzen saiatu gara, bainan askotan bertan behera gelditu dira:

- Xapelgoa (Eskolartekoa).- 2 Kanporaketak, 2 Finalerdi eta Finala Senpereko Larraldean uztailaren 4ean eta 11an ospatu dira.
- Bertsu topaketak, ez dira gauzatu.
- Bertsu-eskolen besta: Ez da gauzatu.
- Haizea Dator.- Lehenak egin dira. Apiriletik aitzinekoak ez dira ospatu.
- Seaskan ematen den bertsu erakaskuntza jarraitu da. Ikastolen Konfederazioarekin urteroko hitzarmena sinatu da. 2019-2020: 29 ikastoletan, 60 talde. 837 ikasle.
- Bertsulari Tfipi egunak ezin izan dira ospatu.
- Ikastoletatik bertsu eskolarteko zubi lana egin da.
- Bertsulariak eskoletarat.- Ikasturteko lehenak egin dira. Apiriletik aitzinekoak ez dira egin.
- Adar Elebidunetako jardunean tailerrak eman dira. Ikasturtearen bukaeran eskaintzen diren Besta Egunak ezin izan dira egin. 2020-2021 ikasturtean 28 eskoletan, 58 talde eta 764 ikasle.
- Bertsu eskoletako erakasleen jarraipena egin da.

OROKORRA: COVID-19aren pandemiak markatu du ikasturtea, eta erabat baldintzatu ditu eskolatik kanpoko egitasmo gehienak.

SUSTAPENA

- Sustapeneko eragileak Sustapen Taldea koordinatzen du. Taldea hilabetean behin biltzen da eta honen inplikazioa ezbaian ezartzeko arrazoirik ez izateaz gain XILABA Xapelketaren antolaketan inplikazio handia agertu du. Borondatezko talde sendoa da.

- Talde motibatua eta eraginkorra da eta honi esker orain arteko ekitaldi guztiak baikorki baloratzeko moduan gara. Sustapeneko egitasmoak ardua eta zeregin handiak dituenaz, azpimarratzekoa da borondatezko talde honek erakusten duen engaiamendua, molde batez edo bestez sustapeneko ekimen guzietan parte hartzen du.
- Aurtengo zenbakiei begiratzen badiegu, Covid-19aren pandemiak markatu du urtea, eta erabat baldintzatu ditu egitasmo gehienak Bertsu saio bereziek, Plazako saio arruntek eta lagun arteko gehienak bertan behera gelditu dira.
- XILABA Xapelketa ere, Final Herenetako azken saioa eskas zela bertan behera gelditu beharra izan genuen. Ospatutako saioek jende anitz erakarri dute, beti ere aforoarekin lekuak bete dira.
- 28 bertsulari izan dira izena eman dutenak (orain arteko kopururik handiena) Formatua (lau Kanporaketa, hiru Final Heren, bi Final Aitzineko eta Finala. Lau Kanporaketa eta bi Final Herenetako saioak ospatu dira (beti ere aforoak baldintzatuta). Jendeak bikain erantzun du. Azken Final Herenetako saioa ezin ospaturik gelditu da eta XILABA Xapelketa bertan behera gelditu da. Aitzin ikusitakoarekin konparazioa egin ezker, sarrerek eta publizitate akordio guttiago izan dira. Lan-taldeak (epaileak, gai- emaile/jartzaileak) ongi osatu dira eta lanean ederki jardun dute.
- Hernandorena Bertso Sariketa ez da ospatu.
- Helduen bertsu-eskolak segurtatzea. Egiteko gelditu da.
- Adin-Adin ez da egin.
- Hezkuntzarekin lehen urratsak eman dira.

KOMUNIKAZIOA

- Hedapenean eta Komunikazioan indar berezi bat egin da.
- Punttuka irrati saioa martxan. (Euskal Irratien hitzarmenaren barnean)

IKERKUNTZA

- Saioen grabaketak eta bilketak egiten jarraitu da.

IDAZKARITZA ETA KOORDINAZIOA

- Elkartearen sostengarritasun ekonomikoa aztertzen eta aterabideak atxematen hasiak gara.
- Eragile ezberdinekin harremanak egonkortzen eta indartzen saiatu gara. Haiekin hitzarmen ezberdinak sinatzen jarraitu dugu. EKEkin 2 urterakoa sinatu da.
- Lantaldea berrantolatzeke eta indartzeko lehen urratsak eman dira.

BIZKAIKO BERTSOZALE ELKARTEA

URTEKO HELBURUAK

Elkartearen misioa da bertsolaritzaren ekosistema osoa, eskualdez eskualde, etengabe zaintzeko, elikatzeko eta garatzeko bideak edota baliabideak eskaintzea eta egikaritzea, lekuan lekuko errealitateari erreparatuz.

Horretarako, urtero egokitu eta garatuz doan egitasmoa gauzatuko da. Aurten, gainera, ohiko jarduera eta proiektuak gauzatzeaz gain, Bizkaiko Bertsolari Txapelketa urtea izango da batetik, eta bestetik gazteen plazaratzea laguntzeko egitasmo berri bi ipiniko ditugu martxan.

Ebaluazioa

- Pandemiaren eraginez, ezin izan da egitasmoa guztiz gauzatu. Proiektuak etengabe egokituz eta egoera berrira moldatuz aurrera egin dugu, zailtasunak zailtasun.
- Proiektu batzuk bertan behera geratu dira, tartean, Bizkaiko Bertsolari Txapelketa.

IDAZKARITZA

Helburuak

- Zuzendaritza batzordearen osaketa berria egin. Zuzendaritzetan lantzeko edukiak eta prozedurak zehaztu
- Antolaketa eta funtzionamenduari buruzko partaidetza prozesuan parte hartu
- Sostengarritasun ekonomikoa lortu
- Langileen etengabeko formazioa bultzatu
- Feminismoa zehar lerro

Egindakoa

- Lehendakari aldaketa egon da: Asier Ibaibarriagak kargua utzi eta Belate Olabariak hartu du. Horretaz gain, Unai Iturriagak ere zuzendaritza utzi du. Asier Galarza sartu da taldean.
- Pandemiaren eraginez atzeratu egin da.

- Tarifa batzuk egokitu dira.
- Aurrekontuen jarraipen zorrotza egin da pandemiak eragindako egoerak bultzatuta.
- Egoerak ez du lagundu negozio bide berriak zabaltzerako orduan.
- Mintegiekin aurrera jarraitu da.
- Irakasleek Euskal Herriko Unibertsitateak eskainitako formakuntza jaso zuten.
- Feminismoa jarduera denetan zehar lerro moduan txertatu da.
- Emakumeen topaketarik ezin izan da egin egoerak hala baldintzatu duelako.

HEZKUNTZA

Helburuak

- Eskaintzen ditugun zerbitzuen kalitatea hobetu
- Ekintza osagarriak sustatu (aisialdia eta zubi-lana)
- Eskualdeetako plangintzari jarraipena eman

Egindakoa

- Pandemiaren ondorioz momentuko egoerara egokitu behar izan dugu zerbitzua. Itxialdian etxetik ematen zen zerbitzua eta aurrez-aurrekoak ere moldatu egin dira.
- Pandemiak bete-betean baldintzatu ditu ekintza hauek:
- Ezin izan da ikastetxeetako bertso saiorik egin.
- Kantaldi gutxi batzuk egin dira urte hasieran eta udazkenean.
- Itxialdi sasoian topaketak online eskani ziren.
- Neguko barnetegia otsailean egin zen eta udakoa birtuala izan zen, online.
- Eskualdeetara eta bertso eskoletara hurreratu gara eragileen bidez.
- Bat-bateko talde dezente galdu dira pandemiaren eraginez.

SUSTAPENA

Helburuak

- Udabarria bertsotan eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketa egin
- Gai-jartzailtza eta epailtza sustatu
- Gazteen plazaratzea sustatu

Egindakoa

- Pandemiaren eraginez, Udabarria Bertsotan irailera atzeratu behar izan zen. Osorik egin zen.
- Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2020 ezin izan da egin.
- Horren faltan, Kopla barik egitasmoa egin da udazkenean: lau saio, lau formatu desberdinetan.
- Talde teknikoak martxan egon dira Udabarria Bertsotan eta Kopla Barik egitasmoan.
- Pandemiak gazteen plazaratzeko proiektuetan ere eragin du.
- Eskolatik plazara ezin izan da egin
- Eskolartekoa maitzean egin beharrean udazkenean egin da.
- BBK Sariketa martxoan hasi zen baina udazkenean amaitu da.
- Ezin izan da Plazara martxan jarri.
- Sakontze Bertso Eskola urtarriletik martxora egin zen baina gero bertan behera geratu behar izan zen.

IKERKUNTZA

Helburuak

- Bilketa lana sustatu
- Haitzondo fitxak

Egindakoa

- Bilketa lana sustatu eta jasotzen jarraitu dugu, nahiz eta askoz gutxiago den jaso dena.
- Ez da Txapelketarik egin eta, puntualak kenduta, ez da Haitzondo fitxarik sortu.

KOMUNIKAZIOA

Helburuak

- Barne komunikazioa landu

Egindakoa

- Zuzendaritza eta lan-taldearen artean elkarguneak egon dira sentipenak eta beharrianak elkarbanatzeko; bai itxialdi sasoiari, baita gero ere.
- Bazkideekin komunikazioa zaindu da.

GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA

URTEKO HELBURUAK

Urteko helburua egitasmoa indartzea bazen ere, pandemiak dena hankaz gora jarri duen honetan egitasmoari eustea izan da egin duguna. Batez ere hezkuntza arautuko proiektuari eusten jarri ditugu indarrak eta beste egitasmoari nahi baino denbora gutxiago eskaini diogu.

Jendearekin egoteko ez da urterik hoberena izan eta hori nabari dugu bertso eskolekiko harremanetan. Harreman horiek berreskuratzea zen helburuetako bat eta ez gara nahi bezala iritsi.

Momentuak plazan eragitea eskatu du, baina antolatzaileengana iristea ez da uste bezain erraza, Elkartetik oso urrun geratzen diren antolatzaile pila baitago. Barne mailan egindako lanekin berriz balorazio positiboa: zuzendaritza berrantolatzekeo prozesua luze bezain interesgarria izan da. Irakasle mintegietan egin den lana ere ezinbestekoa eskoletan egiten ari garenaz kontzientzia hartu eta proiektua hobetzeko, lan taldeko motibazioan ere igarri da.

IDAZKARITZA

Zuzendaritza: Zuzendaritza Batzordearen berrantolaketa

Egindakoak

- Zuzendaritza kideekin banakako elkarrizketak eginda diagnostiko bat egin eta hutsuneak identifikatu ditugu.
- Lehendakaria aldatzeaz gain (Asier Azpirozek hartu du gidaritza, taldearen babesean) batzordea berritzeko perfil batzuen hutsunea (hiru zehar lerroen arabera) identifikatuta 8 izeneko zerrenda osatu eta 8 elkarrizketa egin ditugu Zuzendaritzarako gonbidapenarekin. 8 horietatik 6 kide berri animatu dira Zuzendaritzan parte hartzera: Ane Zuazubiskar, Ane Beloki, Unai Mendizabal, Aitor Urbietta, Maite Sukia eta Oihana Aranguren.

Gogoeta estrategikoa: Funtzionamenduaren partaidetza prozesua behar bezala egin eta lan moduak egokitu.

Egindakoak

- Parte hartze prozesuaren sozializazioa eta lehen fasearen antolaketa.

Kudeaketa: Aurrekontuko sarrerak/gastuak aztertu eta orekatu.

Egindakoak

- Ordezko irakasleen lanaldia finkoenaren irizpide berdinekin kalkulatzaren kostua aztertu dugu. Orduen eta gastuen kalkulua eginda irakasle denen lanaldia irizpide berdinetara ekartzeko erabakia hartu dugu.
- Administrazioko kudeaketa tresnaren diseinuan parte hartu dugu.
- Gabineteko bileretan parte hartu dugu eta unean uneko jarraipena egin diogu aurrekontuari.

KOMUNIKAZIOA

Komunikazio kudeaketa: Barne komunikazioa: lan taldearen eta zuzendaritzaren arteko komunikazioa bermatu eta Euskal Herri mailako informazioa eta egitasmoa lan taldera eta Zuzendaritzara helarazi eta alderantziz, herrialdekoa Euskal Herrira (kudeaketa).

Kanpo komunikazioa: gure proiektuaren hedapena.

Egindakoak

- Eskatzen den gune guztietako informazio orriak bete ditugu bileretarako.
- Antolatutako ekimenen berri eman dugu webgunean. Webguneak eskaintzen dituen bitartekoak (galdeategia adib.) baliatu ditugu izen emateetarako zein gonbidapenak eskuratzeko.

Kanpo harremanak: Orain arteko harremanak behar bezala zaindu.

Egindakoak

- Itxialdi garaian udal/ikastetxeei uneoro funtzionamenduaren inguruko informazioa bidali diegu.
- Ikasturte hasieran hezkuntzarako protokoloak ikastetxeekin landu ditugu.
- Ikasturte berri arraro honetan udalei informazio eta protokolo guztia bidali zaie.

Internet: ditugun tresnak behar bezala aprobetxatu.

Egindakoak

- Webgunea eta sare sozialak baliatu ditugu gure ekimenen hedapenerako.

HEZKUNTZA

Bertso-eskolak

Bertso eskolekin dugun harremana sendotu eta horretarako bide zuzenak bilatu. Dituzten beharrei erantzun ahal den neurrian.

- Hezkuntza: irakasleen formazioa eta konpartitzeko gunea.
- Aisialdia: eskaintza irakasleekin elkarlanean antolatu.
- Ez dagoen lekuak bertso eskola sustatzea.

Bitartekaritzak eta administrazioarekin harremana.

Egindakoak

- Bertso eskoletako irakasleei proposamen didaktikoa eta materiala bidali dizkiegu.
- Bertso eskolen eguna eta gazteen egonaldia ezin izan ditugu antolatu osasun krisia dela eta.
- Ikastetxe batzuetan motibazioa saioak eskaini ditugu: Elgoibar, Antzuola, Tolosaldea, Azkoitia, Azpeitia, Zestoa, Lezo, Getaria, Pasaia eta Donostiko ikastetxe batzuk.
- Hezkuntza arautuko irakasleei tokian tokiko bertso eskolen informazioa eman diegu zubi lana egin dezaten.
- 12 irakasleren ordukako kontratazioak egin ditugu.
- Itxialdi garaian ia bertso eskola gehienekin jarraitu dugu telematikoki.
- Online bertsolaritza lantzeko materiala sortu dugu.
- Bertso eskoletarako protokoloa osatu eta adostu dugu udalekin.

Bertso eskolen arteko harreman sarea: lekuan lekuko topaketak bultzatu eta herrialde mailako ekintzak baliatu ume eta gazteek harremanak egiteko.

Helduen bertso eskolen arteko harreman sareak eta beharrak aztertu.

Egindakoa

- Ikasturte amaieran ezin izan dugu ezer egin. Urte berrirako lanak geratzen zaizkigu.

Umeen eta gazteen plazaratzea: jendaurrean trebatzeko neurriko aukerak eskaini.

Egindakoa

- Eskolartekoa antolatu dugu Ikastolen Elkartearekin elkarlanean. 3 kanporaketa eta finala ospatu ditugu tartean itxialdiko geldialdiarekin. Bigarren aldiz ekin genionean, udazkenean, bertso afari formatua aldatu behar izan genuen eta areto txikietan egin.

Hezkuntza arautua: azken urtetan herrialde osoan hedatuta eta egonkortuta dagoen proiektua izanik kalitatean eragin eta hobetzeko proposamenak aztertu.

Hezkuntzan ari garenaren kontzientzia hartu eta ikaslea erdigunean jarri. Proiektuaren helburuak berraztertu eta betetzeko bitartekoak jarri.

Egindakoa

- Irakasle mintegiak egin ditugu 3 taldetan banatuta. Talde bakoitza bi astez behin elkartzen da.
- Irakasleak euren lana konpartitzera ohitu dira eta norbere hobekuntzarako urratsak eman dituzte.
- Mintegietan egiten den azterketa lanarekin ahozko metodologian urrats garrantzitsuak eman ditugu.
- Itxialdi garaian eskola denekin jarraitu dugu online bertsolaritza lantzen.
- Ikastetxeei material berria eskaini diegu: egoerara egokituta.
- Identifikatutako hutsuneei barne mailako formazio jarraituarekin erantzun diegu.
- EHUKo Udako Ikastaroetan irakasle guztiek jaso dute ahozkoaren didaktikaren ikastaroa.
- HUHEZirekin formazioa jasotzen ari dira lan taldeko 3 kide.
- Klasez klasekoak ematen dituenak irakasle mintegietan aztertu eta arazoei irtenbideak aurkitzen saiatu gara taldean.
- Gipuzkoako ia eskola denetan ikasleak bertsolaritza ahoz lantzen aritu dira.
- Ikasturte bukaeran ezin izan dugu jaialdirik egin, baina 2021erako jaialdi formatua adostu dugu, gelako metodologiarekin bat joango den jaialdi formatua.

PLAZA

GBT2019: balorazioa behar bezala egin eta sustapen arloan hobetzekoak identifikatu.

Egindakoa

- Urtearen lehen zatian GBT2019ko balorazioa egin dugu.
- GBT2019: liburua digitalki argitaratu dugu.

Antolaketa:

- Bertso-eskolei, antolatzaileei... guregana jotzen dutenean behar duten aholkularitza eskaini.
- BTN21, EHBE-rekin elkarlana.

Egindakoa

- Saioen antolatzaileei Lankuren berri eman diegu.
- Plaza Biziberritzen:
 - o Bertso Jasa: katalogoa diseinatu dugu eta Gipuzkoako Udal guztietara bidali dugu, saio batzuk atera dira
 - o Bertso eskola batzuekin bilerak egin ditugu uneko egoera sozializatuz, Plaza Biziberritzenen berri emanez eta saioak antolatzera animatuz. Ez da hain erraza.

Epailletza: epaile taldearen funtzionamendua eta formazioa bermatu.

Egindakoa

- Epaile eskola iraunkorreko informazioa jaso dugunean behar bezala aztertu izan dugu.
- Sariketa batzuetan epaile taldeko epaileak izatea bultzatu dugu.

Gai-jartzailetza: gai jartzaile taldearen funtzionamendua eta formazioa bermatu.

Egindakoa

- Sariketa batzuetan gai jartzaile taldeko gai jartzaileak izatea bultzatu dugu.
- EDK saioetarako gai jartzaile berrien hutsunea ikusita lan saio bat antolatu dugu EHko sustapen sailarekin batera.

- Gai jartzailletzan interesa duten 5 gazterekin kontaktua egin dugu. Formazioa eskaintzea da gure asmoa.

Komunikazioa: talde teknikoak Elkartearen proiektuaren parte senti daitezen harremana etengabe zaindu.

Egindakoa

- 2020an ez dugu elkartzeko aukerarik izan.

Bertsolarien plazaratzea. Bertsolarien plazaratzean elkarrearen ardurak zeintzuk diren aztertu eta behar denean esku hartu.

Plazaratze bidean daudenei bide hori erraztu.

Egindakoa

- Eskatu zaigun kasuetan sariketen antolatzaileei bertsolari gazteen zerrenda pasa diegu.
- Bertsolari gazteen tailerra jarri dugu martxan: plazara begira dauden 9 gazteko taldea osatuta 5 saio egin ditugu Beñat Gaztelumendik dinamizatuta 5 bertsolari gonbidaturekin. Tailerra honetan parte hartu duten gazteentzat bertso zirkuitu baten diseinua egin dugu.

IKERKUNTZA

Bertsolaritzaren oinarritzko fondoa biltzen jarraitu eta antolatu

- Bertso eskoletatik jaso dugun materiala (kartelak, grabazioak...) Xenpelarrera bidali dugu.

Bertso-ekitaldien informazioa bildu

- Bertso eskola batzuk antolatutako ekimenen berri Xenpelarrera bidali dugu.

Argazki bilketa

- Gure ekitaldi guztien bilketa egin dugu eta Xenpelarrera bidali dugu.

Plazaz plazako bertso-ekitaldien grabazioen bilketa

- Gure ekitaldi guztiak grabatu ditugu bideoz eta audioz, baita Xenpelarrera bidali ere.

Bertsoaldien bilketa

- Txapelketako bertso guztiak transkribatu ditugu.

NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

URTEKO EBALUAZIO OROKORRA

- Lantaldea egonkortu da (pandemiaren ondorioz, une batean airean izan zen lanpostu bat, baina eutsi zaio), eta funtzionamendua egonkortu eta fintzen hasi. Sakontzeke.
- Bertso Eskolen kasuan bai, baina orokorrean, egunerokotasunak jan gaitu.
- Bai. Lan handia egin da transmisio esparruan udal/instituzio bakoitzarekin dugun hitzarmena berrikusten eta eguneratzen. Interlokuzioa ona da oro har.
- Ez da egin, 2021era atzeratu delako prozesua (Covid-19aren ondorioz).
- Batzorde gisara baino, norbanako batzuk elkartu dira, baina pandemiak erabat baldintzatu du jarduna, eta ez zaie topaketei aurreikusitako jarraipena eman. Dena den, ideia batzuk atera dira aurrerantzean lantzeko.

OROKORRA: Covid-19aren pandemiak markatu du urtea, eta erabat baldintzatu ditu egitasmo gehienak.

IDAZKARITZA

Egitasmoa, lan taldea eta funtzionamendua egonkortzea eta fintzea

Lantaldea egonkortu da, eta funtzionamendua egonkortu eta fintzen hasi. Sakontzeke.

Diruzaintza lana eraginkortu

- Pauso batzuk eman dira, baina sakontzeko lana da, nahiz eta zaila izan den erabat zehaztea.
- Diruzaintza taulak berriro dira eta fakturazioaren jarraipena hobetu.
- Diru laguntzen azterketa egin da, baina gauza batzuetan erdibidean (adibidez, Sustraiak deialdiaren berdiseinua). Sakontzen jarraitzekoa.
- Diruzaintza taula sortu da, jarraipen etengaberako, eta hori positiboa da.
- Caixabank-etik Laboral Kutxarako saltoa.

Instituzioekiko interlokuzio egokian sakondu

Lan handia egin da transmisio esparruan udal/instituzio bakoitzarekin dugun hitzarmena berrikusten eta eguneratzen. Interlokuzioa ona da oro har

Zuzendaritza berritu eta egonkortu

- Kide berriak sartu dira: Nerea Bruño eta Irati Majuelo
- Zuzendaritzakideen interes eta motibazioen gaia aztertu da eta ekarpenak jaso dira.
- Ardurak partekatzeari dagokionez da neurri zehatzik hartu; oraindik eragileen gain dago Nafarroaren ordezkaritza Euskal Herri mailako batzorde eta guneetan.
- Gontzal Agote sartu da Euskal Herriko lehendakaritzan, taldekako lehendakaritza sortu zenetik zegoen beharrari erantzunez.

KOMUNIKAZIOA

Barne komunikazioa: lan-talde, borondatezko eta bazkideak informatuta mantendu

- Batzar Orokorra egin da. (Parte hartze prozesuaren berri emateko ere baliatu zen)
- Bertsozalea-n eta barne orrian, Nafarroako informazioa egotea bermatu da; agian behar baino gutxiago, baina egin da.
- Zuzendaritzarekin mantendu eta are hobetu da harremana eta informazio trukaketa.
- Bazkideen e-posta sarea baliatu da informaziorako. Covid-19ak eragindako moldaketak ere komunikatu dira.

Kanpo komunikazioa: egitasmoen hedapena

- Webgunea eta sare sozialak baliatu dira.
- Prentsarekiko harremana egitasmokakoa da, ez dago hitzarmen orokorrik, ez da egin.
- Egitasmo bakoitzerako euskarriak egin eta zabaldu dira.
- Bertso Eskoletarako irudi eta kanpaina propioa aurreikusten bazen ere, ez da egin, pandemiaren ondorioz aurrekontua doitu behar izan zelako, eta gastu hori murriztu zen.
- Elkartearen aurkezpen karta oraindik ez da baliatu, ez fisikoan ez digitalean.

SUSTAPENA

Bardoak 2020: Nafarroako Bertso Eskolen Sarea aktibatu, taldeen kohesioan eta elkar harremanean sakondu, bertsolari gazte eta hasiberrien plazaratzea erraztu. Egitasmoa Nafarroako lurraldean barreiatu.

- Bi txandatan (martxora arte, eta urritik aurrerakoa) egin behar izan da pandemiaren ondorioz, baina lortu da aurrera ateratzea.
- Motibazio eta konpromisoan hutsuneak somatzen dira alde batetik, baina bestetik, oso funtzio inportantea batzuentzat.
- Finalaurrekoen fasean aldaketa planteatu da, eta oso balorazio ona: taldeei karga arindu + hedapen geografikoa

Nafarroako Bertsolari Txapelketa 21 diseinatzen hasi

- Pandemiaren ondorioz, txapelketa 2021eko udazkenara atzeratzea erabaki da, beraz ez dira zehaztutako lanak bete.

Bertsoaroa 2020: Bertsolaritzaren kalitatezko eskaintza bermatzea Iruñean, bertsolaritzaren aniztasuna ikusarazi eta Nafarroako bertsolariak/gazteak promozionatu.

- Balorazio ona, eta helburuak beteta.
- Xehetasun teknikoetan, badira hobetzekoak (sarreraren kudeaketa, oholza gaineko euskarriak, eta abar), baina balorazioa oso ona.

Izeta 2020: Bertsolari gazteen plazaratzea sustatu.

- Izetaren IX. Edizioa egin da, eta neurri berezien ondorioz, egun bakarrean egin da dena (kanporaketa + finala). Oso balorazio ona. Egun osoko planteamenduak giro ona bultzatzen du.
- Parte hartze handia (16 lagun) eta kalitate maila ona.

Epaile eta gai-jartzaile taldeei jarraipena egin eta baliabideak eskaini.

- Ez da jarraipen berezirik egin, eta ez da dedikaziorik inbertitu.
- Epaileek Formakuntza saio batzuk egin dituzte, baina haien inizatibaz (ez eragiletzatik proposatuta). Balorazio ona.

- Bi taldeetan atera den ondorioa da, betiko jende faltaren mantratik atera, eta dauden kideen borondate, gogo eta inplikazio handian jartzeko fokoa.

Bertso saioen antolaketa sustatu

- COVID-19aren ondorioz, saio gutxiko urtea izan da. Sartu diren gutxi horietan egin da mediazio lana, bai.
- Diru laguntza aukera berriak aztertu bai, baina ez da pausu zehatzik eman arlo horretan

Saioetako antolaketa, ordainketa eta kontratazioa argitu

- Plazako datuen bilketa eta ordenatzea egin da, azken 5 urteei dagokionez.
- Plaza biziberritzen bileraren baitan, azaldu da kontratazio sistema.
- Ez da bertso saioak antolatzeko gidarik egin, baina proiektatu da hurrengo urterako.

TRANSMISIOA

Hezkuntza Arautuko eskaintza egonkortu eta ahal den neurrian sakondu.

- Fakturazioaren jarraipenerako baliabideak txukundu dira. Programaren neurketarekin pausu batzuk eman dira, baina sakontzeke.
- Lan-taldeak (eta bereziki, irakasleek) gaitasun eta inplikazio handia erakutsi dute egoera berri eta zailera egokitzeko.
- Gutxi gora behera programaren hedadurari heldu zaio: ikastetxe bat erori da pandemiaren eraginez (Ermitaberri), eta beste bat sartu da Errigorarekin lortutako hitzarmen bati esker (Tafallako Ikastola).
- DBHrako ez da pausu zehatzik eman.
- Irakasleak formatzeko programa ez da eskaini, batetik orain arteko irakaslearen bajagatik, eta bestetik pandemiaren ondorioz.

Bertso-eskolak: sarea egonkortu, eskaintza hobetu eta taldeen jarraikortasuna bermatu. Bertso Eskolen Plana. Bertso Eskolen irudia berritu.

- Bertso-eskolen eskaintzaz eta antolaketaz gogoeta egin da, eta ondorio batzuk ere atera dira. Gogoeta horren ondoriozko erabakiak ongi jasotzea eta gogoetari jarraipen formala ematea falta da.

- Taldeen jarraikortasuna mantentzeko apustua egin da neurri horiek hartzeko, eta horien gaineko kontzientzia hartzen ere hasi da, baina pandemiak zaildu du horren gauzatzea.
- Toki batzuetan, ikastetxetik herrirako saltoa egin da halaberharrez, pandemiak behartuta, baina zailtasun handiekin.
- Talde kopurua jaitsi da, pandemiaren eraginez.
- Egitasmoaren gastuak/sarrerak neurtzeko pausuak eman dira.
- Ezin izan da irudi berria eta merchandising-a garatu, aurrekontua doitzeko hartutako erabakien ondorioz.

Aisialdiko jarduera osagarriak: gazteen plazaratzea, harremanak sendotzea, alderdi ludikoa eta aisialdizko bultzatzea...

- Eskolartekoa egin da, modu berezian, eta parte hartze txikiagoarekin.
- Gainerako jarduera guztiak bertan behera, Covid-19aren ondorioz.

IKERKUNTZA

Bertsolaritzak Nafarroan uzten duen ondarea jaso eta gorde.

- Bertso saioetako argazki, audio eta bideoak jaso eta dokumentatzea. Egin da.
- Nafarroako emakumeen topaketetan Nafarroako bertsolaritzaren historian emakumeek izandako papera jaso zen.

2018ko Kultur Intereseko Ondasun izendapenari aplikazioak bilatu

Nafarroako Gobernuaren izendapenari jarraipena emango dion aplikaziorik ez da bilatu: argitalpenen bat, jardunaldiak...

Nafarroako Bertsolaritzaren historia laburtua osatu

Euskarri txiki bat sortzea aurreikusten zen, eskaerei erantzuteko: historia laburtua jasoko duen dokumentu bat. Ez da egin.

Bertsolaritza eta Nafarroako jota bateratuko dituen egitasmoa diseinatu

- Joten inguruko erreferentziak identifikatu eta interlokuzioa abiatu. Ez da egin.
- Balizko proiektuaren nolakotasuna aztertu. Ez da egin.

Nafarroan egindako elkarrizketak eta ikerketak bildu

Kike Diez de Ulzurrun eta Pedro Diez de Ulzurrunek bere garaian bildutako materiala jaso eta argitalpena aztertu. Ez da egin.